

Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 26ko 2/1999 FORU ARAUA.¹

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Arau osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru arauaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

AURRETIAZKO KAPITULUA: IZAERA, XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA.....	4
1. artikulua. Izaera eta xedea	4
2. artikulua. Aplikazio eremua eta ordainarazpen eremua	4
3. artikulua. Araudia	7
4. artikulua. Itunak eta hitzarmenak	7
I. KAPITULUA: ELEMENTU PERTSONALAK	7
5. artikulua. Zergadunak	7
6. artikulua. Lurralde espainiarren egoiliarra izatea	7
6.bis artikulua. Errentak esleitzea	8
7. artikulua. Errenten indibidualizazioa	8
8. artikulua. Erantzuleak	8
9. artikulua. Ordezkarriak	9
10. artikulua. Zerga helbidea	10
II. KAPITULUA: ZERGARI LOTUTA EGOTEA	11
11. artikulua. Zergagaia	11
12. artikulua. Gipuzkoan lortutako errentak	11
13. artikulua. Errenta salbuetsiak	16
14. artikulua. Lotzeko moduak eta elkarri lotutako eragiketak	22
III. KAPITULUA: ESTABLEZIMENDU IRAUNKOR BITARTEZ LORTUTAKO ERRENTAK	22
15. artikulua. Establezimendu iraunkorrei egotzitako errentak	22
16. artikulua. Establezimendu iraunkor bat baino gehiago egotea	23
17. artikulua. Zerga oinarria zehaztea	24
18. artikulua. Oinarri likidagarria eta zerga zorra	26
19. artikulua. Zergaldia eta sortzapena	28
20. artikulua. Zergaren aitorpena	28
21. artikulua. Betebehar erregistralak, formalak eta kontabilitatekoak	28
22. artikulua. Konturako ordainketak	29
IV. KAPITULUA: ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABE LORTUTAKO ERRENTAK	29
23. artikulua. Oinarri ezargarria	29
24. artikulua. Zerga kuota	31
25. artikulua. Kenkariak	34
26. artikulua. Sortzapena	34

¹ Azaroaren 27ko 1.202/2001 Foru Aginduak, hainbat zerga arautan jasotako zenbatekoak pezetatik eurora aldatu eta aldaketa horri buruzko arauak ematen dituenak, xedatutakoari jarraiki, Foru Arau honek pezetatan jasotzen dituen zenbateko guztiak eurotara aldatuak geratzen dira. (Abenduaren 13ko GAO, 238. zk.a)

27. artikulua. Aitorpena	35
28. artikulua. Betebehar formalak	35
29. artikulua. Konturako ordainketak	35
30. artikulua. Atxiki eta kontura sartzeko betebeharrak	36
30.bis artikulua. Lan etekinen gainean atxikitze betebeharrak, egoitza aldatzen denean	37
31. artikulua. (Indargabetua)	38
V. KAPITULUA: ENTITATE EZ EGOILIARREN ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO KARGA BEREZIA	38
32. artikulua. Entitate Ez Egoiliarren Ondasun Higiezin gaineko Karga Berezia	38
VI.KAPITULUA. ERRENTAK ESLEITZEKO ERREGIMENEAN DAUDEN ENTITATEAK....	40
32.bis artikulua. Errentak esleitzeko erregimenean dauden entitateak	40
1. sekzioa: <i>Errenta esleipenaren erregimenean dauden entitateak, Espainian eratu direnak</i>	40
32.ter artikulua. Jarduera ekonomikoa egiten duten entitateak	40
32.quer artikulua. Jarduera ekonomikorik egiten ez duten entitateak	40
2. sekzioa: <i>Errenta esleipenaren erregimenean dauden entitateak, atzerrian eratu direnak</i>	41
32.quinques artikulua. Errenta esleipenaren erregimenean dauden entitateak, atzerrian eratu direnak	41
32.sexies artikulua. Espainiako lurraldean dauden entitateak	41
32.septies. Espainiako lurraldean ez dauden entitateak	42
VII. KAPITULUA: BESTELAKO XEDAPENAK	43
33. artikulua. Europako Batasuneko estatuetan egoitza duten zergadunentzako aukera	43
34. artikulua. Zerga zorraren ondorengotza	45
35. artikulua. Zergadunaren ondare erantzukizuna	45
36. artikulua. Urraketak eta zigorrak	45
37. artikulua. Ordena jurisdikzionala	45
38. artikulua. Behin-behineko likidazioa	45
39. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketen kenkaria	46
XEDAPEN GEHIGARRIAK	46
Lehena. Arauei buruzko aipamenak	46
Bigarrena. Ondare Zergari buruzko abenduaren 27ko 14/1991 Foru Araua aldatzea	46
Hirugarrena. Atxikipenari edo konturako sarrerari ez lotzea	46
Laugarrena. Adiskidantzazko prozedurak	46
Bosgarrena. Salbuespen partziala ondasun higiezin jakin batzuen eskualdaketatik eratorritako ondare irabazietan	48
XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA	48
XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA	49
AMAIERAKO XEDAPENAK	49
Lehena. Arauak emateko ahalmena	49
Bigarrena. Indarrean jartzea	49

HITZAURREA

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko araudian, ohi denez, zerga ordaintzeko bi modu ezarri dira, bi tributazio mota bereiziz: zerga ordaintzeko betebeharrak pertsonala, lurralde espainiarrean egoitza duten subjektu pasiboek dagokiena; eta zerga ordaintzeko ondasun betebeharrak, lurralde espainiarrean egoitza ez duten subjektu pasiboek dagokiena bertan errentak lortzen dituztenean.

Ohiko bereizketa horri jarraitu zaio gaur arte Gipuzkoako lurralde historikoan zerga horiei buruzko araudian. Horrela, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauan eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauan bereizten da betebeharrak pertsonaleko subjektu pasiboek eta ondasun betebeharreko subjektu pasiboek artean. Gainera, beren xedapenen zati batean lotu zaio lurralde espainiarrean egoitza ez duten pertsona fisikoek eta entitateek Gipuzkoan lortutako errenten tributazio moduari.

Zerga ordaintzeko betebeharrak pertsonalaren eta ondare betebeharraren artean, halere, alde handiak daude. Beraz, biak batera arautzeak zaildu egiten du bi betebeharrak horiek behar bezala artikulatzea.

Bestetik, komeni da pertsona fisiko eta entitate ez egoiliarrek testu bakarra izatea Gipuzkoan lortutako errenten tributazioari buruz.

Hemen esandakoa kontuan hartuz, foru arau honen asmoa da araudi hori bateratzea, horretarako lurralde espainiarrean egoitza ez duten pertsona fisikoek eta entitateek Gipuzkoan lortutako errentei aplikatu beharreko zerga araudia modu bateratuan eta homogeneoan arautuz, araudi honetan aldaketa tekniko nabarmenik egin gabe.

Horrela, jarraipena ematen zaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauan ez egoiliarren araudian hasitako bideari, izan ere zerga hori ordaintzeko betebeharrak pertsonala besterik ez baitu jaso.

Foru arau honen egitura honelakoxea da: 38 artikulua, aurretiazko kapituluarekin eta beste sei kapituluarekin; bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta amaierako bi xedapen.

Aurretiazko kapituluan zergaren zuzeneko izaera finkatu da, bai eta Gipuzkoan lortutako errentez osatuta dagoen xedearekin batera. Era berean, aplikazio eremua eta zergaren ordainarazpena mugatuz dira, indarrean dagoen Ekonomia Itunean jasotako lotura puntuak kontuan hartuz.

I. kapituluan zerga honen elementu pertsonalak arautu dira; horrela, izaera orokorrean lurralde espainiarrean egoitza ez duten pertsona fisiko eta entitateak zergaduntzat hartu dira. Era berean, zergadun horiek zerga helbidea non duten kontuan hartu da, eta erantzuleen eta horien ordezkarien figurak definitu dira.

II. kapitulua zergagaiari buruzkoa da, eta bertan mugatu dira Gipuzkoako lurralde historikoan lortutzat ematen diren errentak eta salbuespenak.

III. eta IV. kapituluetan, berriz, zergari lotuta egoteko bi moduak erregulatu dira, errentak establezimendu iraunkor baten bitartez edo hori gabe lortu diren kontuan hartuz.

IV. kapitulua, era berean, atxikitzeko eta kontura sartzeko betebeharrari buruzkoa ere bada.

V. kapituluan Ez Egoiliarren Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Berezia jasota dago.

Azkenik, VI. kapituluan xedapen desberdinak ezarri dira. Horien artean aipagarriena da Europako Batasuneko estatuetan egoiliarrek direnei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun gisa ordaintzeko ematen zaien aukera, baldin eta beharkizun batzuk betetzen badira. Izan ere, horrela 1993ko abenduaren 21ean Europako Batasuneko Komisioak egindako Gomendioa txertatu da, ez egoiliarren egoitzarena ez den estatu batasunkide batean lortutako errenta batzuen zerga araudiari buruz.

Xedapen gehigarrietan lotu zaio, aldiz, indarrean dagoen araudian foru arau honek ordezkaturako araudiari buruz egon daitezkeen aipamenen gaiari.

Xedapen iragankorrean, zerga honetara ekarri ditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudi berrian jasotako arau iragankorrak.

Xedapen indargabetzailean, azkenik, indarrak gabe utzi dira foru arau honek eragindako xedapenak. Eta amaierako xedapenetan foru arau hau indarrean jartzeko eguna finkatu eta erregelamendu bidez garatzeko behar diren baimenak eman dira.

Aurretiazko kapitulua: Izaera, xedea eta aplikazio eremua

1. artikulua. Izaera eta xedea.

Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga zuzeneko tributua da, eta lurralde espainiarrean egoiliar ez diren pertsona fisikoek eta entitateek Gipuzkoako lurralde historikoan lortutako errenta kargatzen du, foru arau honetan jasotakoaren arabera.

2. artikulua. Aplikazio eremua eta ordainarazpen eremua.²

1.³ Foru arau honetan xedatutakoa honako hauei aplikatuko zaie:

² Artikulu hau otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUaren 2. artikulua aldatu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldatetara, eta Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldatetara egokitzen du. Aldaketa 2007ko urriaren 27an jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2008-02-15ko GAO).

a) Lurralde espainiarrean egoiliar izan gabe establezimendu iraunkorrik gabe Gipuzkoan errentak lortzen dituzten pertsona fisikoei edo entitateei, foru arau honen 12. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Lurralde espainiarrean egoiliar izan gabe errentak Gipuzkoan helbideratutako establezimendu iraunkorraren bitartez lortzen dituzten pertsona fisikoei edo entitateei, salbu zirkunstantzia hauek gertatzen direnean:

— Aurreko ekitaldian izandako eragiketa bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izatea.

— Ekitaldi horretan, lurralde erkidean beren eragiketa bolumenaren %75 edo gehiago edo, beste kasu batean, beste bi lurralde historikoetako batean Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketen zenbateko osoa gauzatzea.

c) Lurralde espainiarrean egoiliar izan gabe Araban edo Bizkaian helbideratutako establezimendu iraunkorraren bitartez errentak lortzen dituzten pertsona fisikoei edo entitateei, baldin eta ondoko baldintza hauek betetzen badira:

— Aurreko ekitaldian izandako eragiketa bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izatea.

Ekitaldi horretan, beren eragiketa bolumenaren %75 edo gehiago lurralde erkidean ez gauzatzea.

Ekitaldi horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa bolumen osoa Gipuzkoan gauzatzea.

d) Lurralde espainiarrean egoiliar ez diren pertsona fisikoei edo entitateei, baldin eta errentak lurralde erkidean helbideratutako establezimendu iraunkor bidez lortzen badituzte, baldin eta hiru baldintza hauek betetzen badira:

— Aurreko ekitaldian izandako eragiketa bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izatea.

— Eragiketa guzti-guztiak Euskal Autonomia Erkidegoan egin izana.

— Gipuzkoan egindako eragiketa bolumenaren proportzioa handiagoa izatea beste lurralde historikoetako bakoitzean egindakoarena baino.

2. Zergadunak, aukerazko erregimena aplikatu ahal izateko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaintzea aukeratzen duenean Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela-eta, lurralde honetako araudia hartuko da kontuan, baldin eta zergadunak lanetik eta jarduera ekonomikoetatik euskal lurraldean lortzen dituen etekinek Espainian lortzen duen errenta osoaren zatirik handiena egiten badute eta, horietatik, Gipuzkoan lortutakoak handiagoak badira beste bi lurraldeetako bakoitzean lortutakoak baino.

³ Apartatu hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUaren 5. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2012ko urtarilaren 1etik aurrera ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

Zergadunak itzulketarako eskubidea duenean, Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko dio itzultzekoa, kontuan hartu gabe errentak Espainiako zein lekutan lortu dituen.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainaraziko du zerga hau ondoko kasuetan:

a) Lurralde espainiarrean egoiliar ez diren pertsona fisikoek edo entitateek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak badira, Gipuzkoan lortutzat hartzen direnean, foru arau honetako 12. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Lurralde espainiarrean egoiliar ez diren pertsona fisikoek edo entitateek establezimendu iraunkorraren bitartez lortutako errentak badira:

a') Oso-osorik, zerga helbidea Gipuzkoan dutenean eta aurreko ekitaldiko eragiketa bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izan ez denean.

b') Oso-osorik, Gipuzkoan bakarrik jarduten direnean eta aurreko ekitaldiko eragiketa bolumen osoa 7 milioi eurotik gorakoa izan denean, zerga helbidea edonon edukita ere.

c') Gipuzkoan ekitaldiaren barruan lortutako eragiketa bolumenaren proportzioan, subjektu pasiboa lurralde horretan ez ezik beste batean ere jarduten denean, lurralde erkidea izan edo foru lurraldea izan, baldin eta aurreko ekitaldiko eragiketa bolumen osoa 7 milioi eurotik gorakoa izan bada, zerga helbidea edonon edukita ere.

4. Subjektu pasibo bat lurralde batean edo bestean jarduten dela ulertuko da, horietan ondasunak saldu edo zerbitzuak ematen dituenean Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 2.bis artikuluan finkatutako irizpideei jarraituaz.

Ondasun salmenta eta zerbitzu prestaziotzat joko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko legerian hala definituta dauden eragiketak.

5. Eragiketa bolumentzat honakoa joko da: subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun salmentak eta zerbitzu prestazioak direla-eta, ekitaldi batean lortutako kontraprestazioen zenbateko osoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago.

Ekitaldian lurralde bakoitzean egindako eragiketa bolumenaren proportzioa zehazteko, Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 2.bis artikuluan jasotako arauak aplikatuko dira. Era berean, bi zenbaki hamartarrez biribildutako portzentajea adieraziko da proportzioa.

Aurreko ekitaldia urtebetea baino laburragoa bada, eragiketa bolumena zehazteko, urte osoari dagokiona kalkulatu da ekitaldian egindako eragiketetatik abiatuta.

6. Ekitaldian jarduera hasi berria denean, ekitaldi horretan egindako eragiketa bolumenari begiratuko zaio, eta, lehenengo ekitaldia urtebetea baino laburragoa izan bada, urte osoari dagokiona kalkulatu da, dena ekitaldian egindako eragiketetatik abiatuta. Harik eta ekitaldi horretako eragiketak zenbatekoak izan diren eta non egin diren jakin arte, halakotzat hartuko dira, ondorio guztietarako,

subjektu pasiboak aurrez kalkulatzeko dituenak, jardueraren hasierako ekitaldian ustez egingo dituen eragiketen arabera.

3. artikulua. Araudia.

Foru arau honen bitartez erregulatuko da Zerga, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren araudiari jarraiki interpretatuko da, behar denaren arabera.

4. artikulua. Itunak eta hitzarmenak.

Foru arau honetan jasotakoa Espainiako zuzenbide antolamenduaren barruko nazioarteko itun eta hitzarmenetan xedatutakoa eragotzi gabe ulertuko da.

I. kapitulua: Elementu pertsonalak

5. artikulua. Zergadunak.

Ondoko hauek izango dira zerga honen zergadunak:

a) Ondorengo 6. artikuluan xedatutakoaren arabera Espainiako lurraldean egoitza ez duten pertsona fisikoak eta entitateak, baldin eta foru arau honetan deskribatutako errentak lortzen badituzte, salbu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak badira.

b)⁴ 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 3. artikuluen 5. apartatuan jasotako zirkunstantzietako batengatik Espainian egoiliar diren pertsona fisikoak, baldin eta foru arau honetan deskribatutako errentak lortzen badituzte.

c)⁵Foru arau honetako 32.sexies artikuluan aipatutako errenta esleipenaren erregimeneko entitateak.

6. artikulua. Lurralde espainiarren egoiliarra izatea.⁶

Lurralde espainiarrean egoitza zehazteko, ondoko zuzenbide arau hauetan xedatutakoa hartuko da kontuan: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari

⁴ Letra hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 3. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Foru arau horrek jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

⁵c) letra hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUaren 94.artikuluak erantsi du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

⁶ Artikulu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 3. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Foru arau horrek jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

eta Sozietateen, Ez-egoiliarren Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergen Legeen aldaketa partzialari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 9. artikuluan; eta Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 8. artikulua 3. apartatua.

6.bis artikulua. Errentak esleitzea.⁷

2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 11. artikuluan aipatzen dituen errenta esleipenaren erregimeneko entitateen errentak nahiz haiek jasandako atxikipenak eta konturako sarrerak bazkideei, komuneroei edo partaideei esleitzeko zaizkie, foru arau horrek IV. titulua VI. kapitulu 2. sekzioan eta foru arau honek VI. kapitulu jasotakoaren arabera.

7. artikulua. Errenten indibidualizazioa.⁸

Pertsona fisikoak diren zergadunei aplikatuko zaie 2006ko azaroaren 28ko 35/06 Legeak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Sozietateen, Ez-egoiliarren Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergen Legeen aldaketa partzialari buruzkoak, 11. artikuluan errenten indibidualizazioari buruz jasotakoa.

8. artikulua. Erantzuleak.

1.⁹ Solidarioki erantzungo du, berak ordaindu dituen etekinen edo, bestela, gordailatu edo kudeatu dituen ondasun edo eskubideen errenten zerga zorren ordainketari dagokionez, establezimendu iraunkorrik gabe zergadunek sortutako etekinen ordaintzaileak edo, bestela, zergadunek establezimendu iraunkor bati atxiki gabe dituzten ondasun edo eskubideen gordailuzain edo kudeatzaileak, hurrenez hurren.

Ez da horrelako erantzukizunik egongo foru arau honek 30. artikuluan jasotako atxikipenari edo konturako sarrerari buruzko betebeharra aplikaziozkoa denean, ez eta artikulua horretako 4 apartatua jasotako kasuetan ere, atxikitzailea izateak berarekin dakartzan erantzukizunak eragotzi gabe.

⁷ Artikulu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 3. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Foru arau horrek jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

⁸ Artikulu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 3. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Foru arau horrek jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

⁹ 1. apartatu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUaren 96. artikulua aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga, Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

2.¹⁰ Ezin da ulertu pertsona edo entitate batek etekin bat ordaintzen duela ordainketa batean bitartekaritza lana besterik egiten ez duenean. Ordainketako bitartekaritza soilizat hartuko da hirugarren baten kontura eta aginduz diru kopuru bat ordaintzea.

3.¹¹ Zerga honen zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe sortutako etekinen ordaintzailearen kasuan, bai eta establezimendu iraunkor bati atxikita ez dauden eta paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetako pertsona edo entitate egoiliarrenak diren ondasun edo eskubideen gordailuzaina edo kudeatzailea denean ere, Zerga Administrazioak bere jarduketak zuzenean erantzulearekin egin ahal izango ditu, eta zerga zorraren ordainketa exijitu ahal zaio, 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 41.5 artikuluan jasotako erantzukizunaren aldez aurreko egintza administratiboa beharrezkoa izan gabe.

Gainerako kasuetan, aldiz, erantzukizun solidarioa 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 41.5 artikuluan jasotakoaren arabera exijituko da.

4.¹² Foru arau honek 9. artikuluan jasotakoaren arabera ordezkari diren pertsonen erantzungo dute solidarioki foru arau honek 32. sexies artikuluan aipatzen dituen zergadun ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrei eta entitateei dagozkien zerga zorren ordainketaz.

9. artikulua. Ordezkarriak.¹³

1. Zerga honen zergadunak behartuta daude ohiko egoitza edo zerga helbidea Gipuzkoan duen pertsona fisiko edo juridiko bat izendatzera, Gipuzkoan lortutako errenta aitortzeko epea amaitu aurretik, zerga honen betebeharrak direla eta Zerga Administrazioaren aurrean ordezkatuak izateko, establezimendu iraunkor

¹⁰ 2. apartatu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAREN 96. artikulua aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga, Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

¹¹ 3. apartatu hau urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUAREN 1. artikuluko apartatu lehenak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2006ko abenduaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2007-1-15eko GAO).

¹² 4. apartatu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAREN 96. artikulua erantsi du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga, Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

¹³ 9. artikulua hau urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUAREN 1. artikuluko apartatu bigarrenak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2006ko abenduaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2007-1-15eko GAO).

bitartez jarduten direnean Foru Arau honek 23.2 eta 32.sexies artikuluetan aipatutako kasuetan edo, bestela, Zerga Administrazioak horrela eskatzen duenean ikusirik subjektu pasiboak Gipuzkoan lortutako errentaren zenbatekoa eta ezaugarriak.

Betebehar hori exijituko zaie, era berean, Zerga iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko Legeak lehen xedapen gehigarriaren 3. apartatuan jasotakoaren arabera zerga informazioaren benetako trukea ez duten herrialde edo lurraldeetan egoiliar diren pertsona edo entitateei, betiere lurralde espainiarrean kokatuta dauden ondasunen edo bertan bete edo gauzatzen diren eskubideen titularrak badira, kanpoan utzita bigarren mailako merkatu ofizialetan negoziatutako baloreak.

Zergaduna edo bere ordezkaria behartuta dago Zerga Administrazioari izendapenaren berri ematera, bidezko frogagiriak aurkeztuta, bi hilabeteko epean izendapenaren egunetik aurrera.

Izendapena Fiskaliterako eta Finantzetarako Departamentuko zuzendari nagusiari jakinaraziko zaio, eta jakinarazpenarekin batera ordezkaria onartzen dela adieraziko da espresuki.

2. Aurreko apartatuan jasotako izendapen obligazioa ez bada betetzen, Merkataritza Erregistroan agertzen den ordezkaria har dezake Zerga Administrazioak Foru Arau honek 5. artikulua c) letran aipatutako establezimendu iraunkorraren edo zergadunaren ordezkari gisa. Ordezkaria izendatu edo erregistratu ez bada, edo establezimendu iraunkorraren izenean kontratatzeko ahalmena duenaz besteko pertsona bada, Zerga Administrazioak azken hori hartu ahal izango du halakotzat.

Ordezkaria izendatzeko obligazioa ez badute betetzen Zerga iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko Legeak lehen xedapen gehigarriaren 3. apartatuan jasotakoaren arabera zerga informazioaren benetako trukea ez duten herrialde edo lurraldeetan egoiliar diren pertsona edo entitateek, Zerga Administrazioak haien ordezkariatzat har dezake zergadunaren ondasun edo eskubideen gordailuzaina edo kudeatzailea.

3. Lehen apartatuan aipatutako obligazioa ez betetzea zerga urraketatzat hartuko da, eta 2.000 euroko diru isun finkoz zigortuko da.

Isuna 6.000 eurokoa izango da, aldiz, baldin eta, Zerga iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko Legeak lehen xedapen gehigarriaren 3. apartatuan jasotakoaren arabera, zerga informazioaren benetako trukea ez duten herrialde edo lurraldeetan egoiliar diren pertsona edo entitateak badira.

10. artikulua. Zerga helbidea.¹⁴

1. Espainiako lurraldean egoiliar ez diren zergadunek Gipuzkoan izango dute zerga helbidea, kasu hauetan:

¹⁴ Artikulu hau Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duen urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUaren II Kapitulu 4.artikulua bi zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-02-06).

a) Establezimendu iraunkorraren bidez jarduten badira, Gipuzkoan gauzatzen denean administrazioaren kudeaketa edo negozioen zuzendaritza.

Aurreko irizpidearen arabera ezin denean zehaztu zerga helbidea non den, establezimendu iraunkorrek zerga helbidea Gipuzkoan dutela ulertu beharko da, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan izanik, Gipuzkoan ibilgetuaren balio handiagoa dutenean beste bi lurralde historikoetako bakoitzean dutena baino.

b) Ondasun higiezinetatik eratorritako errentak lortzen direnean, baldin eta ordezkariaren zerga helbidea Gipuzkoan badago eta, horren ezean, ondasun higiezina lurralde horretan dagoenean.

c) Aurreko letretan jaso gabeko gainerako kasuetan, ez-egoiliarren ordezkariaren edo, horren ezean, erantzule solidarioaren zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean.

2.¹⁵ Ordezkaria izendatu ezean, erantzule solidarioaren helbidean egindako jakinarazpenek zergadunari zuzenean egindako jakinarazpenen balio bera eta ondorio berberak izango dituzte.

Balio bera izango dute haien edozein ondasun higiezinaren kokalekuan egin daitezkeen jakinarazpenek, baldin eta ordezkaria izenda-tzeko obligazioa ez badute betetzen Zerga iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko Legeak lehen xedapen gehigarriaren 3. apartatuan jasotakoaren arabera zerga informazioaren benetako trukea ez duten herrialde edo lurraldeetan egoiliar diren pertsona edo entitateek.

II. kapitulua: Zergari lotuta egotea

11. artikulua. Zergagaia.

1. Zergagaia izango da zerga honen zergadunek Gipuzkoan diruzko edo gauza bidezko errentak lortzea, ondorengo artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Zerga honi lotutako errentak sor ditzaketen ondasun, eskubide edo zerbitzuen prestazioak edo lagapenak ordainduta daudela ulertuko da, kontrakoa frogatzen ez bada.

3. Ez dira zerga honi lotuta egongo Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari lotutako errentak.

12. artikulua. Gipuzkoan lortutako errentak.¹⁶

¹⁵ 2. apartatu hau urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUAren 1. artikuluko apartatu hirugarrenak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2006ko abenduaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2007-1-15eko GAO).

¹⁶ 12.artikulu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 98.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza

1. Gipuzkoan lortu edo sortutako errentatzat hartzen dira establezimendu iraunkorraren bitartez lortutakoak, foru arau honek 2. artikulua 3 apartatuko b) letran jasotako arauari jarraituz. Aipatu arauak pertsona fisikoei nahiz entitateei aplikatuko zaizkie.

Pertsona fisikoa edo entitatea establezimendu egonkor bidez jarduten dela ulertuko da baldin eta edozein titulu bidez mota bateko nahiz besteko instalazio edo lantoki batzuk erabiltzen baditu, etenik gabe edo normalean, eta lana instalazio edo lantoki horietan egiten badu oso-osorik edo zati batean, edo, bestela, instalazio horietan bertan subjektu pasiboaren izenean eta kontura kontratatze baimenduta dagoen eta normalean botere horiek berak gauzatzen dituen agente baten bidez lan egiten badu.

Establezimendu iraunkorrak izango dira, bereziki, zuzendaritza-egoitzak, sukurtsalak, bulegoak, fabrikak, tailerrak, biltegiak, denda edo antzeko establezimenduak, meatzeak, petrolio- edo gas-putzuak, harrobiak, nekazaritza, baso nahiz abeltzaintzako ustialetxeak, baliabide naturalak aurkitu edo ateratzeko tokiak, eta eraiki, instalatu edo muntatzeko obrak, sei hilabete baino gehiago irauten badute.

2. Gipuzkoan lortu edo sortutako errentatzat hartzen dira establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenta hauek:

a) Ustiapen ekonomikoen etekinak, jarduerak Gipuzkoan gauzatzen direnean. Ez da ulertuko Gipuzkoako lurralde historikoan lortu direla Gipuzkoan atzerriko makina edo instalazioak instalatzearen edo muntatzearen ondorioz lortutako etekinak, baldin eta eragiketa horiek makina edo instalazioen hornitzaileak egiten baditu eta beren zenbatekoa elementu horien erosketa prezioaren 100eko 20tik gorakoa ez bada.

b) Azterketa, egitasmo, laguntza tekniko, kudeaketarako laguntza, zerbitzu profesional eta antzeko beste zerbitzu batzuetatik lortutako etekinak, zerbitzu horiek Gipuzkoan eman edo erabiltzen badituzte. Gipuzkoan eman direla ulertuko dira Gipuzkoan gauzatzen diren jarduera enpresarial edo profesionalei emandako zerbitzuak edo lurralde horretan kokatutako ondasunei buruzkoak. Zerbitzu horiek Gipuzkoan egindako jarduera ekonomikoetarako zati batean ematen direnean, Gipuzkoan lortutakotzat hartuko dira bakarrik Gipuzkoan egindako jardueraren zatiaren neurrian.

Zerbitzua ez bada erabiltzen emate tokian bertan, non erabiltzen den hartuko da kontuan.

c) Artista eta kirolariek Gipuzkoan pertsonalki egiten duten jarduketatik edo jarduketa horri lotutako beste edozein jardueratik zuzenean edo zeharka eratorritako etekinak, nahiz eta artista edo kirolaria ez den pertsona edo entitate batek jaso.

d) Menpeko lanak zuzenean edo zeharka ematen dituen etekinak, lan hori Gipuzkoan egiten denean.

Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

Ondorio horietarako, zerbitzua Gipuzkoan eman dela ulertuko da Gipuzkoako Administrazioak ordaindutako sari publikoak direnean, edo jarduerak gauzatzean jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoek edo Gipuzkoan egoiliarak diren entitateek edo nazioarteko trafikoan ari den itsasontzi edo aireontzi baten barruan betetako enplegu batengatik Gipuzkoan kokatutako establezimendu iraunkorrek ordaintzen dituzten sariak direnean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko lana osorik atzerrian egiten denean eta etekin horiek izaera pertsonaleko atzerriko zerga bati lotuta daudenean.

e)¹⁷ Pentsioak eta gainerako antzeko ordainsariak, Gipuzkoan kokatutako enplegu baten ondorio direnean, edo Gipuzkoan egoiliarra den pertsona edo entitate batek edo lurralde horretan kokatutako establezimendu iraunkor batek ordaintzen dituen.

Pentsiotzat hartuko dira aurreko enplegu bat dela medio ordaintzen diren sariak, kontuan hartu gabe langileak berak edo beste pertsona batek jasotzen dituen edo ez.

Antzeko prestaziotzat hartuko dira, partikularki, 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 18. artikuluen a) letratik i) letrara bitartean jasotakoak.

f) Zerga helbidea Gipuzkoa duen entitate bateko administratzaileen eta administrazio kontseiluko, horren ordezkari biltzarreko edo ordezkari organoko kideen ordainsariak, artikuluko honen 4 apartatuan jasotako zenbatekoan.

g) Gipuzkoan helbidea duten euskal entitate publikoen dibidenduak eta fondo propioetako partaidetzatik eratorritako bestelako etekinak nahiz entitate pribatuaren fondo propioetako partaidetzatik eratorritakoak, artikuluko honen 4 apartatuan jasotako zenbatekoan.

h)¹⁸ Kapital higikorren interesak, kanonak eta bestelako etekinak:

a') Gipuzkoan zerga helbidea duten euskal pertsona fisikoek edo entitate publikoek ordainduak direnean eta, era berean, entitate pribatuak edo establezimendu iraunkorrek ordainduak direnean, artikuluko honen 4 apartatuan jasotako zenbatekoan.

b') Gipuzkoako lurraldean erabilitako kapital prestazioak ordaintzeko direnean.

Irizpide horiek ez badatoz bat, ordaindutako prestazioaren kapitala non erabili den hartuko da kontuan.

¹⁷ Letra hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAREN 3. artikuluko bost apartatuak aldatu du. Foru arau horrek jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO)

¹⁸ h) letra hau, zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUAREN I Kapituluko 3. artikuluko Bigarren apartatuaren Bat zenbakiak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu.

Kanontzat edo emakida-saritzat hartuko dira honakoak erabili edo horien erabilera harteagatik ordaintzen diren mota guztietako kopuruak:

- Eskubideak literatura, arte edo zientzia obren gainean, bai eta zinemako filmen gainean ere.
- Patenteak, fabrika edo merkataritza markak, marrazkiak edo ereduak, planoak, formulak edo isilpeko prozesuak.
- Eskubideak programa informatikoen gainean.
- Informazioak industria, merkataritza edo zientzia esperientziei buruz.
- Laga daitezkeen eskubide pertsonalak, hala nola irudi eskubideak.
- Industria, merkataritza edo zientzia ekipoak.
- Aurrekoen antzekoa den edozein eskubide.

Partikularki, horrelakotzat hartuko dira Jabetza Intelektualaren Legearen testu bateratuari buruzko 1/1996 Errege Dekretu Legegileak, Patentei buruzko 11/1986 Legeak eta Markei buruzko abenduaren 7ko 17/2001 Legeak babestutako eskubideak erabiltzeagatik edo horien eskubidea emateagatik ordaindu diren kopuruak.

i) Gipuzkoan kokatutako ondasun higiezinetatik edo horiei buruzko eskubideetatik zuzenean edo zeharka datozen etekinak.

j) Gipuzkoan kokatutako ondasun higiezin hiritarren titular diren zergadun pertsona fisikoei egotzitako errentak.

k) Ondare irabaziak, kasu hauetan:

a') Gipuzkoan helbidea duten euskal herritar edo entitate publikoek jaulkitako baloreetatik eratorriak direnean eta, era berean, entitate pribatuek jaulkitako baloreetatik eratorritakoak, artikuluko honen 4 apartatuan jasota dagoen zenbatekoan.

b') Baloreez bestelakoak diren Gipuzkoan kokatutako bestelako ondasun higiezinetatik edo lurralde horretan bete edo erabili behar diren eskubideetatik eratorriak direnean.

c') Gipuzkoan kokatutako bestelako ondasun higiezinetatik edo lurralde horretan bete edo erabili behar diren eskubideetatik eratorriak direnean. Partikularki, letra honen barruan hauek egongo dira:

- Euskal lurraldean kokatutako ondasun higiezinez nagusiki osatutako aktiboa duen entitate egoiliar edo ez-egoiliar baten eskubide edo partaidetzetatik eratorritako ondare irabaziak, Gipuzkoan kokatutako ondasun higiezinaren kontabilitate balioa handiagoa denean gainerako lurralde historikoetako bakoitzean kokatutako ondasun higiezinaren kontabilitate balioa baino.

- Entitate batean, egoiliarra izan edo ez, eskubide edo partaidetzak eskualdatuz lortutako ondare irabaziak, baldin eta haien titularrari Gipuzkoan kokatutako ondasun higiezinaren gaineko gozamen eskubidea ematen badiote.

d') Zergadunaren ondarean sartzen direnean Gipuzkoan kokatutako ondasunak edo lurralde horretan bete behar diren edo gauzatzen diren eskubideak, nahiz eta alde zuzeneko eskualdaketa batetik ez etorri, hala nola jokoan izandako irabaziak.

Ondasun higiezinak Gipuzkoan eta beste lurralde batean edo batzuetan kokatuta daudenean, aipatu irabaziak Gipuzkoan lortu direla ulertuko da artikuluko honetako 4 apartatuan jasotako zenbatekoan.

3. Aurreko apartatuan zehaztutako irizpideen arabera, baldin eta errenta aldi berean Gipuzkoan eta beste lurralde batean lortu dela uler badaiteke, ordainarazpena Gipuzkoari egokituko zaio ordaintzaileak ohiko egoitza lurralde gipuzkoarrean duenean, pertsona fisikoa izanez gero. Aldiz, ordaintzailea pertsona juridikoa edo establezimendu iraunkorra izanez gero, artikuluko honen ondorengo apartatuan xedatutakoa hartuko da kontuan.

4. Aurreko 2 apartatuko f), g) letratan, h) letraren a') letran eta k) letraren a') eta c') letratan jasotako kasuetan eta 3 apartatuan jasotako kasuan, ulertuko da entitate pribatuak edo establezimendu iraunkorrek ordaindutako errentak Gipuzkoan lortu edo sortu direla zenbateko honetan:

a) Bakarrik Gipuzkoan zerga ordaintzen duten entitateak edo establezimendu iraunkorrak direnean, haiek ordaintzen dituzten errenta osoak.

b) Gipuzkoako Zerga Administrazioan eta beste zerga administrazio batzuetan zerga batera ordaintzen duten entitateak edo establezimendu iraunkorrak direnean, Gipuzkoan egindako eragiketa bolumenaren proportzioan ordaintzen dituzten errenten zatia.

Dena dela, letra honetan aipatutako kasuetan, Gipuzkoako Zerga Administrazioak eskumena izango du etekin guztiak ordainarazi eta ez-egoiliarrei bidezko diru itzulketak egiteko, baldin eta ohiko egoitza edo zerga helbidea Gipuzkoan badute ez-egoiliarren ordezkari gisa likidazioa aurkezten duten pertsonak, entitateak edo establezimendu iraunkorrek. Aitzitik, aurrekoak ez du kentzen beste administrazio batzuei konpentsatzea haien lurraldeetan egindako eragiketa bolumenaren proportzioari dagokion zatiagatik.

5.¹⁹ Errentaren kontzeptu desberdinak jatorriaren arabera kalifikatu behar direnean, artikuluko honetan jasotakoari jarraitu zaio eta, besterik ezean, 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, jasotako irizpideei.

¹⁹ Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 3. artikuluko sei apartatuak aldatu du. Foru arau horrek jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

13. artikulua. Errenta salbuetsiak.²⁰

1. Errenta hauek daude salbuetsita:

a) Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen Testu Bateratuak (martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) 14.1.a) artikuluan aipatzen dituen errentak.

b) Kapital propioak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako interesak eta gainerako etekinak, Zergadun Ez- egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen Testu Bateratuak (martxoaren 5eko 5/2004 Errege Dekretu Legegileak onartua) 14.1.c) artikuluan aipatuak, eta, halaber, ondasun higikorretatik datozen ondare irabaziak, baldin eta Europar Batasuneko beste estatu batean egoitza duten egoiliarrek establezimendu iraunkorrik gabe edo Europar Batasuneko estatu kide batean kokatutako egoiliar horien establezimendu iraunkorrek lortuak badira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko entitate baten akzio, partaidetza edo bestelako eskubideak eskualdatzearen ondorioz lortzen diren ondare irabazietan, kasu hauek gertatzen badira:

a') Entitate horren aktiboa, zuzenean edo zeharka, euskal lurraldean kokaturik dauden ondasun higiezinez osatuta badago nagusiki.

b') Eskualdaketa egin aurreko hamabi hilabeteetan, zergadunak zuzenean edo zeharka entitate horren kapital edo ondarean gutxienik %25eko partaidetza izan badu inoiz.

c) Zor Publikotik eratorritako etekinak, establezimendu iraunkorrik gabe lortuak badira.

d) Pertsona fisiko nahiz juridiko ez-egoiliarrek establezimendu iraunkorrik gabe Espainian jaulki dituzten baloreetatik sortutako errentak. Ordainketen agente gisa diharduten edo baloreen jaulkipen nahiz eskualdaketa bitartekari lana egiten duten erakunde finantzarioen egoitza non dagoen gutxienekoa izango da.

Hala ere, baloreen titularra establezimendu iraunkor bat denean, aurreko paragrafoan aipatu diren errentak zerga honi geldituko dira loturik, baita, hala badagokio, konturako atxikipenen sistemari ere. Konturako atxikipena baloreen gordailuzain gisa diharduen eta bertan egoitza duen entitate finantzarioak egingo du.

e) Ez-egoiliarren kontuen etekinak, baldin eta zerga honen zergadunei ordaintzen bazaizkie. Etekin horiek ez dira salbuetsita egongo Espainiako Bankuak edo atzerriko transakzio ekonomikoei buruzko araudian aipatutako entitate erregistratuek establezimendu iraunkor bati ordaintzen diotenean.

f)²¹ Establezimendu iraunkor baten bitartekaritzarik gabe lurralde espainiarrean lortutako errentak, baldin eta nazioarteko itsas edo aire nabigazioan erabiltzen

²⁰ Artikulu hau, 29ko 10/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Ereentaren gaineko Zerga onartzen duenak aldatzen du, bere hemezortzigarren xedapen gehigarrian. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak. (GAO 2006-12-30).

diren edukiontzi, itsasontzi edo aireontziak hutsik errentan eman, laga edo eskualdatzeagatik lortuak badira.

Aireontzien kasuan, salbuespena aplikatuko da baldin eta nazioarteko bidaietan izandako erabilpen maila handiagoa bada enpresa errentariak erabilitako aireontzi guztiek hegaldietan egindako distantzia osoaren ehuneko 50 baino.

g)²² Lurralde espainiarrean egoitza duten sozietate filialek Europar Batasuneko beste estatu batzuetako sozietate nagusi egoiliarrei edo hauek beste estatu kide batzuetan dituzten establezimendu iraunkorrei banatutako mozkinak, beharkizun hauek betetzen badira:

1. Sozietate biak Europar Batasuneko estatuetan entitate juridikoen mozkinak kargatzen dituzten zergetako bati lotuta eta ez salbuetsita egotea (mozkin horiek Europako Kontseiluaren 1990eko uztailaren 23ko 90/435/EEE Zuzentarauak, estatu kide desberdinetako sozietate nagusi eta filialen araubideari buruzkoak, 2.c) artikuluan aipatuak dira), eta establezimendu iraunkorrak zergari lotuta eta salbuetsi gabe egotea horiek kokatuta dauden estatuan.

2. Mozkinaren banaketa sozietate filiala likidatzearen ondorioa ez izatea.

3. Sozietate biek Europako Kontseiluaren 1990eko uztailaren 23ko 90/435/EEE Zuzentarauak, estatu kide desberdinetako sozietate nagusi eta filialen araubideari buruzkoak (abenduaren 22ko 2003/123/EEE Zuzentarauaren bidez aldatuak), eranskinean jasotako formatako bat hartzea.

Beste sozietate baten kapitalean gutxienez zuzeneko edo zeharkako 100eko 5eko partaidetza duen entitatea hartuko da sozietate nagusitzat. Beste entitatea, berriz, sozietate filiala izango da. Beharrezkoa izango da aipatutako partaidetza etenik gabe eduki izana banatzen den mozkinak exijigarri den egunaren aurreko urtean edo, bestela, behar den denboran eduki beharko da urtebetea osatu arte. Azken kasu horretan, ordaindutako epe hori amaitu ondoren itzuliko da zerga kuota.

Orobat, entitate bat sozietate nagusi dela joko da baldin eta, aipatutako partaidetza portzentajea aurretik izan duelarik, eta partaidetza hori eskualdatu gabe, portzentaje hori gutxienez 100eko 3raino murriztu badu eragiketa hauetako bat egin delako: Sozietate filialak bat egitea, bereiztea, aktiboak ekartzea edo baloreak trukatzeko, europar sozietate baten edo europar sozietate kooperatibo baten zerga helbidea horrelako eragiketetarako Sozietateen gaineko Zergan ezartzen den zerga araubide berezira bildutako Europar Batasuneko estatu batetik beste batera aldatzea, edo baloreak eskuratzeko eskaintza publikoen

²¹ Letra hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 4. artikuluko bat apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun.

²² Letra hau uztailaren 27ko 3/2012 FORU DEKRETU-ARAUaren 1. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu-arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga bereziak eta Jokoaren gaineko Zerga aldatzen ditu. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jartzen da indarrean (2012/08/13ko GAO) eta aldaketa honek 2012. urteko uztailaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

arloko eragiketa bat egitea. Sozietate nagusiaren izaera hori hiru urtez mantenduko da, eragiketa egiten denetik aurrera, betiere posibleak banatzen diren ekitaldian partaidetza oso-osorik eskualdatzen ez bada edo partaidetza ehuneko 3ko gutxieneko portzentajearen azpitik geratzen bada.

Estatu kidean indarrean dauden legeen arabera zehaztuko da egoitza, zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenetan ezarritakoa eragotzi gabe.

Aurrekoa hala izanik ere, Ekonomia eta Ogasun Ministroak aitortu ahal izango du, elkarrekikotasun baldintzapean, g) letra honetan jasotakoa ondoko hauei ere aplikatu ahal izango zaiela: Zuzentzarauaren eranskinean jasotakoa ez bezalako forma juridikoa duten sozietate filialei batetik, eta sozietate nagusiei banatutako mozkiniei bestetik, baldin eta, azken kasu horretan, sozietate nagusiak Espainian egoiliarra den sozietate filial baten kapitalean zuzenean edo zeharka duen gutxieneko partaidetza 100eko 5ekoa bada. Gutxieneko partaidetza hori 100eko 3koa izan daiteke eragiketa hauen kasuan: Sozietate filialak bat egitea, bereiztea, aktiboak ekartzea edo baloreak trukatzeta, europar sozietate baten edo europar sozietate kooperatibo baten zerga helbidea horrelako eragiketarako Sozietateen gaineko Zergan ezartzen den zerga araubide berezira bildutako Europar Batasuneko estatu batetik beste batera aldatzea, edo baloreak eskuratzeko eskaintza publikoen arloko eragiketa bat egitea, betiere g) letra honetan ezartzen diren gainerako baldintza guztiak betetzen badira.

Honako g) letra honetan jasotakoa ez da aplikatuko sozietate nagusiko boto eskubiderik gehiena, zuzenean edo zeharka, Europar Batasuneko estatuetan egoiliar ez diren pertsona fisiko edo juridikoen esku daudenean. Dena den, salbuespena egingo da sozietate nagusiak sozietate filialaren jardura enpresarialekin zer ikusia duen jardura enpresarial bat egiten duenean, bere helburua sozietate filiala bitarteko materialak eta giza baliabideak egoki antolatuz zuzentzea eta kudeatzea denean edota, azkenik, frogaturik uzten duenean sozietate filiala arrazoi ekonomiko zuzenengatik eratu dela eta ez, ordea, g) letra honetan jasotako araubideaz behar ez bezala gozatu nahi izateagatik.

g) letra honetan xedatutakoa lurralde espainiarrean egoitza duten sozietate filialek Europako Espazio Ekonomikoko estatuetan dituzten sozietate nagusi egoiliarrei edo horiek beste estatu kide batzuetan dituzten establezimendu iraunkorrei banatutako mozkiniei ere aplikatuko zaie, beharkizun hauek betetzen badira:

1. Sozietate filialek egoitza duten Europako Espazio Ekonomikoko estatuek Espainiarekin izenpetzea nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen bat, informazioa trukatzeko klausula duena, edo bestela, zerga informazioa trukatzeko akordio bat.

2. Sozietate horiek Europar Batasuneko estatuetan entitate juridikoen posibleak kargatzen dituzten zergen baliokide den bati lotuta eta salbuetsi gabe egotea (mozkin horiek Europako Kontseiluaren 1990eko uztailaren 23ko 90/435/EEE Zuzentzarauak, estatu kide desberdinetako sozietate nagusi eta filialen araubideari buruzkoak, 2.c) artikuluan aipatuak dira), eta establezimendu iraunkorrak zergari lotuta eta salbuetsi gabe egotea horiek kokatuta dauden estatuan.

3. Europako Espazio Ekonomikoko kide diren estatuetan egoiliar diren sozietate nagusiek Europako Kontseiluaren 1990eko uztailaren 23ko 90/435/EEE

Zuzentzerak, estatu kide desberdinetako sozietate nagusi eta filialen araubideari buruzkoak (abenduaren 22ko 2003/123/EEZ Zuzentzeraren bidez aldatuak), eranskinean jasotako formen baliokidetasunak bat hartzea.

4. g) letra honetan jarritako gainerako beharrezkoak betetzea.

h) Espainiako bigarren mailako balore merkatuetan egiten diren balore eskualdaketetatik edo inbertsio funderako partaidetzen itzulketetatik eratorritako errentak, baldin eta establezimendu iraunkorrik gabe pertsona fisiko edo entitate ez-egoiliarrek lortuak badira, Espainiarekin zergapetze bikoitza ekiditeko hitzarmen bat, informazioa trukatzeko klausularekin, sinatu duen estatu batean egoiliar izanik.

i) Oinarri ezargarrian sartu gabeko errenten kargura banatutako ozkinak, Sozietate Zergaren zutailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, jasotzailea lurralde espainiarreko ez-egoiliarra den pertsona fisiko edo entitate bat denean. Ondorio horietarako, banatu den lehen ozkina oinarri ezargarrian sartu gabeko errentetatik eratorri dela ulertuko da.

Letra honetan jasotakoa ez da aplikatuko, oro bat, ozkinaren jasotzailea arauz paradisutik fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean egoiliarra denean. Ozkina banatzen duen entitateak memorian aipatu behar du oinarri ezargarrian sartu gabeko errenten zenbatekoa.

j) Ez-egoiliarren Errentaren gainerako Zergaren Legearen Testu Bateratuak (martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) 14.3 artikuluan jasotakoaren arabera salbuetsitatzat hartu diren errentak.

k) Pertsona fisikoek Herri Administrazioetatik jasotzen dituzten beka eta bestelako dituen kopuruak, betiere kultura, hezikuntza eta zientzia alorrean izenpeturiko nazioarteko lankidetzak akordio eta hitzarmenen ondorioz ordaindu edo Ez-egoiliarren Errentaren gainerako Zergari buruzko Legearen Testu Bateratuak (martxoaren 5eko 5/2004 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartua) 14.1.b) artikuluan jasotako nazioarteko lankidetzari buruzko urteko planaren indarrez jasotzen badira.

l) Pertsona Fisikoen Errentaren gainerako Zergaren Legeak, Sozietateen gainerako, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gainerako eta Ondarearen gainerako Zergen Legeak partez aldatzen dituenak, 25. artikuluan 1. apartatuko a) eta b) letretan aipatzen dituen dibidenduak eta ozkinetako partaidetzak, egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean edo (Zerga Iruzuraren Preben-tziorako Neurrien Legeak lehenengo xedapen gehigarriko 3. apartatuan xedatutakoaren arabera) zerga informazioaren benetako trukea dagoen herrialde edo lurraldeetan duten pertsona fisikoek establezimendu iraunkorrik gabe lortuak badira, 1.500 euroko mugarekin. Muga hori urte naturalean lortutako etekin guztien gainera aplikatuko da.

m)²³ Pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen testu bateratuak, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, araututakoen pareko pentsio fondoei establezimendu iraunkorrik gabe lortutako dibidenduak eta mozkin-partaidetzak, egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean dutenean, eta erakunde horiek establezimendu iraunkorren bidez lortutako dibidenduak eta mozkin-partaidetzak, pentsio fondo horiek Europar Batasuneko beste estatu batean kokatuta daudenean.

Testu horretan araututakoen pareko pentsio fondotzat gizarte aurreikuspeneko erakundeak hartuko dira ondorengo baldintzak betetzen dituztenean:

—Euren xede bakarra izatea erretiroa, heriotza, ezintasuna edo mendetasuna gertatzen den unean prestazio osagarri bat ematea, pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak 8.6 artikuluan jasotako moduan.

—Enpresarien kontribuzioak prestazioa jasoko duen partaideari egozte zerga ondorioetarako, eta geroko prestazioa jasotzeko eskubidea partaideari eskualdatzea atzera egiteko aukerarik gabe.

—Bai ekarpenei eta bai enpresarien kontribuzioei lehentasunezko zerga araubide bat aplikatzea, hain zuzen ere haiek gerora zergapetzeko aukera ematen duena. Araubide horretan, ekarpen eta kontribuzio guztiak, bai eta haien kudeaketan lortutako etekinak ere, prestazioa jasotzen denean zergapetu behar dira.

Apartatu honetan xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, Europako Espazio Ekonomikoko estatuetan egoiliar diren pareko pentsio fondoei, baldin eta estatu horiek Espainiarekin izenpetua badute nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen bat, informazioa trukatzeko klausula duena, edo bestela, zerga informazioa trukatzeko akordio bat.

n)²⁴ Inbertsio kolektiboko erakundeek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako dibidenduak eta mozkin-partaidetzak. Erakunde horiek izan behar dute 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauak, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarenak, balore higigarrietako inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuen lege xedapenak, erregelamenduzkoak eta administratiboak koordinatzen dituenak, araututakoak. Alabaina, salbuespen hau aplikatutakoan, tributazioa ezingo da inolaz ere izan lurralde espainiarrean helbideratutako inbertsio kolektiboko erakundeek sozietateen gaineko zergan ordaintzen duten karga tasa errenta horiei aplikatuta ateratzen dena baino txikiagoa.

Apartatu honetan xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, Europako Espazio Ekonomikoko estatuetan egoiliar diren inbertsio kolektiboko erakundeei, baldin eta estatu horiek Espainiarekin izenpetua badute nazioarteko zergapetze bikoitza

²³ Letra hau irailaren 20ko 2/2011 FORU DEKRETU-ARAUAREN lehen artikulua aldatu du. Aipatutako Foru Dekretu-Araua Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzen ditu. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egunean (2011/09/26) naiz eta aldaketa honek 2011ko martxoaren 6tik aurrera ditu ondorioak.

²⁴ Letra hau irailaren 20ko 2/2011 FORU DEKRETU-ARAUAREN lehen artikulua aldatu du. Aipatutako Foru Dekretu-Araua Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzen ditu. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egunean (2011/09/26) naiz eta aldaketa honek 2011ko martxoaren 6tik aurrera ditu ondorioak.

saihesteko hitzarmen bat, informazioa trukatzeko klausula duena, edo bestela, zerga informazioa trukatzeko akordio bat.

o²⁵) Lurralde espainiarrean egoiliar den sozietate batek edo Europar Batasuneko beste estatu batean egoiliar den sozietate batek lurralde espainiarrean duen establezimendu iraunkor batek beste estatu kide batean egoiliar den sozietate bati edo Europar Batasuneko beste estatu batean egoiliar den sozietate batek beste estatu kide batean duen establezimendu iraunkor bati ordaindutako kanonak edo erregaliak, baldintza hauek betetzen direnean:

1. Bi sozietateak Kontseiluak 2003ko ekainaren 3ko 2003/49/EE Zuzentarauaren 3.a).iii) artikuluan jasotako zergetako bati lotuta eta salbuetsi gabe egotea. Aipatutako zuzentaraia estatu kide desberdinetako sozietate elkartuen artean egindako interes eta kanon ordainketei aplikagarria zaien zerga araubide komunari buruzkoa da.

2. Bi sozietateek 2003/49/EE Zuzentarauaren eranskinean jasotako formatako bat izatea.

3. Bi sozietateak Europar Batasuneko egoiliar fiskalak izatea eta, errentaren zergapetze bikoitza saihesteko hirugarren estatu batekin sinatutako hitzarmen baten ondorioetarako, ez hartzea hirugarren estatu horretako egoiliartzat.

4. Bi sozietateak elkartuak izatea. Horretarako, bi sozietate elkartutzat hartuko dira horietako batek bestearen kapitalean gutxienez 100eko 25eko zuzeneko partaidetza izatea edo beste sozietate batek horietako bakoitzaren kapitalean gutxienez 100eko 25eko zuzeneko partaidetza izatea.

Beharrezkoa izango da aipatutako partaidetza etenik gabe eduki izana etekinaren ordainketa egin den egunaren aurreko urtean edo, bestela, behar den denboran eduki beharko da urtebetea osatu arte.

5. Bidezkoa denean, kopuru horiek kengarriak izatea kokatuta dagoen estatuan etekinak ordaintzen dituen establezimendu iraunkorrerako.

6. Sozietateak bere onurarako jasotzea ordainketa horiek eta ez, ordea, bitartekari soil gisa edo beste pertsona edo sozietate baten agente baimendu moduan; eta, establezimendu iraunkorra bada, berak jasotako kopuruak benetan lotuta egotea bere jarduerarekin, eta diru sarrera konputagarria izatea kokatuta dagoen estatuan oinarri ezargarria zehaztearen ondorioetarako.

Honako o) letra honetan jasotakoa ez da aplikatuko etekinak hartzen dituen sozietatearen boto eskubiderik gehiena Europar Batasuneko estatu kideetan egoiliar ez diren pertsona fisikoek edo juridikoek zuzenean edo zeharka daukatenean, salbu sozietate hark frogatzen badu arrazoi ekonomiko onargarriengatik eratu dela eta ez, ordea, o) letra honetan jasotako araubideaz behar ez bezala gozatzeko.

²⁵ Letra hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAren 1 artikuluko bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Bereziaren aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko uztailaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

2.²⁶ Inoiz ere ez zaie aurreko apartatuko b), h) eta l) letretan xedatutakoa aplikatuko paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeen bitartez lortutako etekinei edo ondare irabaziei.

Era berean, aurreko apartatuko g) lettran jasotakoa ez da aplikatuko sozietate nagusiaren zerga egoitza edo establezimendu iraunkorra paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean dagoenean.

14. artikulua. Lotzeko moduak eta elkarri lotutako eragiketak.²⁷

1. Lurralde espainiarrean kokatutako establezimendu iraunkor bitartez errentak lortzen dituzten zergadunek establezimendu horri egotzitako errenta osoarengatik ordainduko dute zerga, errenta lortu den tokia edozein izanda ere, Foru Arau honen III. Kapituluan jasotakoaren arabera.

Establezimendu iraunkorrik gabe errentak lortzen dituzten zergadunek batzuk besteetatik bereizita zerga ordainduko dute kargapeko errentaren sortzapen oso edo partzial bakoitzeko, haien artean batere konpentsaziorik gabe eta Foru Arau honetako IV. Kapituluan jasotakoaren arabera.

2. Zerga honen zergadunek beraiei lotutako pertsona edo entitateekin egindako eragiketei aplikatuko zaizkie Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 16. artikuluan jasotako xedapenak.

Horretarako, elkarri lotutako pertsona edo entitatetzat hartuko dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 16.2 artikuluan aipatutakoak. Edonola ere, ulertu behar da egoitza nagusia lurralde espainiarrean kokatuta duen establezimendu iraunkor bat lotuta dagoela egoitza nagusiari edo horren establezimendu iraunkorrei lotutako beste pertsona edo entitate batzuekin, azken horiek lurralde espainiarrean kokatuta egon edo atzerrian kokatuta egon.

Nolanahi ere, errentak establezimendu iraunkor bidez lortzen dituzten zergadunek Zerga Administrazioari eskatu diezaiokete kenkaridun diren zuzendaritza arloko gastuak eta administrazioako gastu orokorrak baloratu ditzala, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 16.6 artikuluan jasotakoaren arabera.

III. kapitulua: Establezimendu iraunkor bitartez lortutako errentak

15. artikulua. Establezimendu iraunkorrei egotzitako errentak.

²⁶ Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 19. artikulua aldatu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa 2008ko apirilaren 22tik aurrerako ondorioak ditu (2008-07-11ko GAO).

²⁷ 14. artikulua hau urtarilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUaren 1. artikuluko apartatu laugarrenak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2006ko abenduaren 1etik aurrera ditu ondorioak (2007-1-15eko GAO).

1.²⁸ Hona establezimendu iraunkorrari egotzitako errentaren osagaiak:

- a) Establezimendu iraunkorrak garatutako jarduera edo ustiapen ekonomikoen etekinak.
- b) Establezimendu iraunkorrari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako etekinak.
- c) Establezimendu iraunkorrari atxikitako ondare elementuetatik eratorri diren ondare irabazi edo galerak.

Establezimendu iraunkorrari atxikitako ondare elementutzat hartzen dira establezimenduaren xedea den jardueraren garapenari funtzionalki lotutakoak.

Entitate baten fondo propioetako partaidetza ordezkatzeko duten aktiboak establezimendu iraunkorrari atxikitako ondare elementutzat hartuko dira establezimendua Merkataritza Erregistroan erregistratutako sukurtsala denean eta arauz jasotako beharkizunak betetzen direnean.

Ondorio horietarako, atxikitako ondare elementutzat hartuko dira desatxiki ondorengo hiru zergaldien barruan eskualda-tzen diren elementuak.

2. Entitate ez egoiliar berak aldeztu aurretik inportatutako ondasunak berresportatzekotan, honela ulertu beharko da:

- a) Batere ondare aldaketarik ez egotea, erabilpen aldian egindako ordainketen tratamendua eragotzi gabe: aldi baterako inportatu diren ibilgetuaren elementuak badira.
- b) Ondare aldaketa egotea: establezimendu iraunkor batek garatutako jardueretan erabiliak izateko erosi diren ibilgetuaren elementuak badira.
- c) Ustiapen ekonomiko baten etekin positibo edo negatiboa egotea: izakin izaera duten elementuak badira.

16. artikulua. Establezimendu iraunkor bat baino gehiago egotea.

1. Entitate ez egoiliar batek jarduera zentro desberdinak izanez gero, establezimendu iraunkor desberdinak direla ulertuko da eta, beraz, bata bestetik bereizita kargatuko dira, zirkunstantzia hauek gertatzen direnean:

- a) Argi eta garbi desberdinak diren jarduerak egitea.
- b) Bata eta bestearen kudeaketa bereizita eramatea.

2. Inoiz ere ezin izango dira errentak konpentsatu establezimendu iraunkor desberdinen artean.

²⁸ Apartatu hau, 29ko 10/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Ereentaren gaineko Zerga onartzen duenak aldatzen du, bere hemezortzigarren xedapen gehigarrian. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak. (GAO 2006-12-30).

17. artikulua. Zerga oinarria zehaztea.²⁹

1. Establezimendu iraunkorraren oinarri ezargarria Sozietate Zergaren arau orokorretan xedatutakoari jarraituz zehaztuko da, paragrafo hauetan xedatutakoa eragotzi gabe:

a) Oinarri ezargarria zehaztean, ez dira kenkaridunak izango establezimendu iraunkorrak etxe nagusiari edo horren establezimendu iraunkorretako bati kanon, interes edo komisio kontzeptuan, laguntza teknikoaren kontraprestazio moduan edo beste ondasun edo eskubide batzuk erabiltzeagatik egiten dizkien ordainketak.

Aurretik xedatutakoa xedatuta ere, kenkaridunak izango dira atzerriko bankuen establezimendu iraunkorrek beren etxe nagusiari edo beste establezimendu iraunkor batzuei haien jarduera gauzatzeko ordaindu dizkieten interesak.

b) Oinarri ezargarria zehaztean, kenkariduna izango da establezimendu iraunkorraren zuzendaritza gastuen eta administrazioko gastu orokorren arrazoizko zatia, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

1. Establezimendu iraunkorraren kontabilitate egoeretan jasotzea.

2. Banaketaren zenbatekoak, irizpideak eta moduluak jasota edukitzea, aitorpenarekin batera aurkeztutako memoria informatiboaren bitartez.

3. Egozpen irizpideak arrazionaltasun eta jarraikortasun printzipioei lotzea.

Egozpen irizpideen arrazionaltasun beharkizuna bete dela ulertuko da irizpide horiek establezimendu iraunkorraren faktoreen erabilpenean eta horien kostu osoan oinarritzen direnean.

Aurreko paragrafoan adierazitako irizpidea erabiltzea ezinezkoa denean, magnitude hauetako bat zer erlaziotan dagoen kontuan hartuaz egin daiteke egozpena:

a') Negozioen zifra.

b') Kostuak eta zuzeneko gastuak.

c') Jarduera edo ustiapen ekonomikoei atxikitako ibilgetu materialaren elementuetan egindako batez besteko inbertsioa.

d') Jarduera edo ustiapen ekonomikoei atxikitako elementuen batez besteko inbertsio osoa.

c) Inola ere ezin izango dira egotzi establezimendu iraunkorrari zuzenean edo zeharka atxikita dauden entitatearen kapital propioen kostuaren zenbatekoak.

²⁹ 17.artikulu hau urtarilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAU Aren 1. artikuluko apartatu bosgarrena aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2006ko abenduaren 1etik aurrera ditu ondorioak (2007-1-15eko GAO).

d) Enpresa txiki eta ertainen araudia aplikagarria izango da baldin eta establezimendu iraunkorrari dagokion entitate ez-egoiliarrek enpresa -txiki edo ertainaren izaera badu, Sozietate Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 49. artikuluan xedatutakoaren arabera.

e) Meatzaritzaren, hidrokarburoen ikerkuntza eta ustiapenaren nahiz errentamendu finantzarioko kontratu -batzuen erregimen bereziak aplikaziozkoak izango dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak VIII. Tituluaren XI., XII. eta XIV. kapituluetan, hurrenez hurren, jasotakoaren arabera.

f)³⁰ Higiezinaren Merkaturaren Inbertitzeko Sozietate Anonimo Kotizatuen erregimen berezia aplikatu ahal izango da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko foru arauaren ezarritakoarekin bat.

2. Establezimendu iraunkorrak oinarri ezargarri negatiboak konpentsatu ahal izango ditu Sozietate Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotakoaren arabera.

3. Ondoko erregela hauek erabiliko dira establezimendu iraunkor batek Espainian egindako eragiketarako diru sarreraren ziklo merkantil oso bat ixten ez dutenean, baldin eta entitate ez-egoiliarrek edo establezimendu iraunkorretako batek zikloa inolako kontraprestaziorik gabe amaitzen badu, establezimendu iraunkorrak sortutako gastuen estaldura kontuan hartu gabe eta produktu edo zerbitzu guztiak edo zati bat entitate ez-egoiliarraz besteko hirugarrenentzat destinatu gabe:

a) Establezimendu iraunkorraren sarrerak eta gastuak Sozietate Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 16. artikuluan jasotako arauari jarraituz baloratuko dira. Zerga zorra, orduan, Sozietate Zergaren araudi orokorrean eta artikulua honen aurreko apartatuaren jasotakoaren arabera zehaztuko da.

b) Horien ordean, erregela hauek erabiliko dira:

1. Oinarri ezargarria zehazteko, aplikatu behar da Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuak establezimendu iraunkorraren xedea den jardura gara-tzean izandako gastu osoei buruz ondorio horietarako erabakitzen duen portzentajea. Kopuru horri enpresaren xede ez diren diru sarrera osagarrien zenbateko osoa (interesak edo kanonak) gehituko zaio, bai eta establezimenduari atxi-kitako ondare elementuetatik eratorritako ondare irabazi eta galerak ere.

Erregela honen ondorioetarako, establezimendu iraunkorraren gastuen zenbateko osoa konputatuko da, eta ez da gutxipen edo konpentsaziorik onartuko.

³⁰ Letra hau, abenduaren 23ko 5/2010 Foru Arauak gehitu du. Aipatu Foru Arauak, zenbait zerga aldaketa onartzen ditu. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta aldaketa honek 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2010-12-28).

2. Kuota osoa kalkulatzeko, karga tasa orokorra aplikatuko zaio oinarri ezargarriari, aipatu araubide orokorrean erregulatutako kenkariak eta hobariak aplikagarriak izan gabe.

4. Baldin eta lurralde espainiarrean sei hilabetetik gorako iraupena duten eraikuntza, instalazio edo muntai lanak, edo sasoi edo urtaro jakineko jarduera edo ustiapen ekonomikoak, edo natur baliabideen miaketa jarduerak egiten dituzten establezimendu iraunkorrak badira, erregela hauei jarraituz exijituko da zerga:

a) Jarduera edo ustiapen ekonomikoetan lurralde espainiarrean establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentei buruz Foru Arau honek 23.2 eta 24. artikuluetan jasotakoari jarraituz. Ondorio horietarako, erregela hauek erabiliko dira:

a') Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenten sortzapen eta aitorpenen aurkezpenari buruz emandako erregelak.

b') Zergadunak salbuetsita egongo dira kontabilitate eta erregistroari buruzko obligazio orokorrak betetzetik. Dena den, zergadunek gorde eta Zerga Administrazioaren esku -utzi beharko dituzte zerga hau dela-eta lortutako sarreren eta egindako ordainketen frogagiriak, bai eta, hala badagokio, atxikipenen eta konturako sarreren frogagiriak eta haiei buruzko aitorpenak ere.

Era berean, behartuta egongo dira zentsu aitorpen bat aurkeztera eta Gipuzkoako zerga helbidea aitortzera, bai eta helbide horretan edo aitorpen hartako datuetan egindako aldaketa jakinaraztera ere.

b) Dena den, zergadunak aukeratu dezake aurreko artikuluetan establezimendu egoiliarretarako finkatutako araubide orokorra aplikatzea.

Nolanahi ere, aurreko a) letran adierazitako sistema erabiltzea derrigorrezkoa izango da lurralde espainiarrean lortutako errenten kontabilitatea bereizita ez daramanean.

Jardueraren hasierari buruzko zentsu aitorpena aurkezterakoan adierazi beharko da aukera hori.

c) Inola ere ez zaizkie aplikatuko, aurreko a) letran jasotako sistema hartu duten zergadunei, ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmenetan jasotako erregelak, establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak direnean.

18. artikulua. Oinarri likidagarria eta zerga zorra.

1. Oinarri likidagarria kalkulatzeko, Sozietate Zergari buruzko Foru Arauaren 25. eta 26. artikuluetan jasotakoa aplikatuko da.

Horretarako, Sozietate Zergari buruzko Foru Arauaren 26. artikulua 2 apartatuko a) letran jasotako beharkizuna bete dela ulertuko da establezimendu

iraunkorrak bere jarduera gutxienez 20 milioi pezetako fondo propioez hasi duenean.³¹

2.³² Oinarri likidagarriari %28ko zerga tasa aplikatuko zaio, salbu eta establezimendu iraunkorraren jarduera hidrokarburoak ikertu eta ustiatzea denean, horrelakoetan %35 aplikatuko baita.

3.³³ Gainera, entitate ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrek lortutako errentak atzerrira transferitzen direnean, %20ko ezarpen osagarria exijituko da establezimendu iraunkorraren errenten kargura transferitutako zenbatekoen gainean, foru arau honen 17.1.a) artikuluan aipatu diren ordainketak ere barruan sartuta, baldin eta establezimendu iraunkorraren oinarri ezargarria finkatzeko garaian horiek gastu kengarriak izan ez badira.

Ezarpen osagarriaren aitorpena eta ordainketa establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentetarako ezarrita dauden moduan eta epeetan egingo dira.

4.³⁴ Ondoko hauei ez zaie aplikatuko ezarpen osagarria:

a)³⁵ Zerga egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean duten entitateek establezimendu iraunkor bidez lurralde gipuzkoarrean lortutako errentei, non eta hura paradisu fiskal-tzat hartutako herrialdea edo lurraldea ez den.

b) Ezarpen bikoitza saihesteko Espainiarekin hitzarmena sinatu duen estatu batean zerga egoitza duten entitateek establezimendu iraunkorren bitartez Gipuzkoan lortutako errentei, baldin eta hitzarmenean espresuki bestelakorik finkatu ez bada eta elkarrekiko tratamendua bada.

5. Zergaren kuota osoan hauek aplika daitezke:

³¹ Martxoaren 13ko 3/2000 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Kupoaren Batzorde Mistoak 2000ko urtarrilaren 18an hartutako erabakietara egokitzen duenaren 1.Bi artikulua uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua Sozietaren Gaineko Zergarenaren 26 artikulua indargabetzen du 2000ko martxoaren 18tik aurrerako eraginekin.

³² Apartatu hau abenduaren 23ko 4/2009 Foru Arauaren 2. artikulua aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an sartzen da indarrean eta 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak (2009-12-28ko GAO).

³³ 3. apartatu hau 29ko 10/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Ereentaren gaineko Zerga onartzen duenak aldatzen du, bere hemezortzigarren xedapen gehigarrian. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak. (GAO 2006-12-30) .

³⁴ 4.apartatu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAREN 103.artikulua aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

³⁵ a) letra hau urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUAREN 1. artikuluko seigarren apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2006ko abenduaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2007-1-15eko GAO).

a) Sozietate Zergari buruzko Foru Arauaren 33.etik 46. artikulura bitartean aipatutako hobari eta kenkarien zenbatekoa.

b) Atxikipen, konturako sarrera eta ordainketa zakitatuaren zenbatekoa.

6. Kenkari eta hobari desberdinak establezimendu iraunkorraren zirkunstantzien arabera egingo dira. Beraz, ez dira kontuan hartuko entitate beraren beste establezimendu batzuenak.

7. Benetan egindako atxikipen, konturako sarrera eta ordainketa zatikatuak handiagoak direnean zergaren kuota osoan artikuluko honetako aurreko 5 apartatuaren a) letran aipatutako hobari eta kenkariak eginez ateratzen den kopurua baino, Zerga Administrazioak soberakina itzuliko du ofizioz, Sozietate Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 129. artikuluan jasotako epeetan eta baldintzetan.

19. artikulua. Zergaldia eta sortzapena.

1. Zergaldia bat etorriko da establezimendu iraunkorrek aitortutako ekitaldi ekonomikoarekin, eta, ez da hamabi hilabetetik gorakoa izango.

Bestelakoa aitortu ez denean, zergaldia urte naturala dela ulertuko da.

Zerga honen lehen aitortpena aurkeztu behar denean jakinaraziko da zergaldia, espresuki aldatzen ez den bitartean berdina izango dela ulertuz.

2. Zergaldia amaitu dela ulertuko da establezimendu iraunkorrek jarduera egiteari utzi dionean edo, bestela, establezimendu iraunkorrek garai batean egindako inbertsioa desatxikitzen duenean, bai eta establezimendu iraunkorra beste pertsona fisiko edo entitate bati eskualdatzen zaionean, etxe nagusiak egoitza aldatzen duenean eta titularra hiltzen denean ere.

3. Zergaldiaren azken egunean sortuko da zerga.

20. artikulua. Zergaren aitortpena.

1. Establezimendu iraunkorrek behartuta egongo dira zerga honen aitortpena aurkeztera, horretarako zerga zorra zehaztuz eta ordainduz, Ogasun eta Finantza Departamentuak finkatutako moduan, tokian eta dokumentazioarekin.

Aitortpena hogeita bost egun naturaleko epean aurkeztuko da zergaldia amaitu ondorengo sei hilabeteetatik aurrera

2. Foru arau honek 19.2 artikuluan jasotako suposamenduetako bat gertatzen denean, aurkezpen epea establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errententzat suposamendua gertatu den egunetik aurrera izaera orokorrean finkatutako bera izango da, eta ezingo da baimendu entitateen zerrendatik kentzea aitortpen hori aurkezten ez den bitartean.

21. artikulua. Betebehar erregistralak, formalak eta kontabilitatekoak.

1. Establezimendu iraunkorrek behartuta daude kontabilitatea bereizita eramatera, eragiketei eta haiei atxikitako ondare elementuei dagokienean.

2. Halaber, behartuta egongo dira Sozietate Zergari buruzko Gipuzkoako zerga araudiaren bitartez entitate egoiliarrei exigitzen zaizkien gainerako betebeharrak erregistratzen, formal edo kontabilitatekoak betetzera.

22. artikulua. Konturako ordainketak.

1.³⁶ Establezimendu iraunkorrak Sozietateen gaineko Zergaren konturako ordainketen araubideari lotuta daude Gipuzkoako zerga horren araudiari lotutako entitate egoiliarren modu berean.

2. Halaber, atxikipenak eta konturako ordainketak egitera behartuta egongo dira Sozietate Zergarei buruzko Gipuzkoako zerga araudiari lotutako entitate egoiliarren modu berean.

IV. kapitulua: Establezimendu iraunkorriak gabe lortutako errentak

23. artikulua. Oinarri ezargarria.

1.³⁷ Izaera orokorrean, zerga honen zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortzen dituzten etekinak oinarri ezargarria zergan sortutako zenbateko osoa izango da. Aipatu zenbatekoa kalkulatzeko, 2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legeak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak eta Sozietateen, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergen aldaketa partzialari buruzkoak, emandako arauak erabiliko dira.

2. Zerbitzu prestazioetan, laguntza teknikoan, ingeniarietarako kontratuetatik eratorritako instalazio edo muntai lanetan eta, oro har, establezimendu iraunkorrik gabe egindako jardueran edo ustiapen ekonomikoak direnean, oinarri ezargarria kalkulatzeko, sarrera osoei kenduko zaizkie obra, lan edo hornidurei atxikitako langileria eta material horniduraren gastuak, erregelamendu bidez jarritako baldintzetan.

3. Berraseguratu eragiketetatik eratorritako etekinak direnean, berriz, oinarri ezargarria berraseguratzailerik ez egoiliarri berraseguruen lagatutako primen zenbatekoak izango dira.

4.³⁸ Ondare irabazien oinarri ezargarria zehazteko, arau hauek aplikatuko zaizkio ondare aldaketa bakoitzari: 3/2004 Errege Dekretu Legegileak, Pertsona Fisikoen

³⁶ Apartatu hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAREN 5. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Aldaketak Foru Araua Gipuzkoako Foru Aldundian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

³⁷ Apartatu hau martxoaren 17ko 1/2009 FORU ARAUAREN 3. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak honako xedapenak aldatu ditu: abenduaren 29ko 10/2006 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, apirilaren 26ko 2/1999 Foru Araua, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena, eta martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua, Zergen Foru Arau Orokorra. 2009ko martxoaren 24tik aurrera ditu ondorioak (2009-03-23ko GAO).

³⁸ 4. apartatu hau urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUAREN 1. artikuluko zazpigarren apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen du.

Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen testu bateratua onartzen duenak, II. tituluko I. Kapitulua 4. sekzioan jasotako arauak (salbu 31.2 artikulua), eta VIII. Tituluan jasotakoak (salbu 95.1.a artikulua bigarren paragrafoa).

Entitate ez-egoiliarren kasuan, ondare irabazia kostu gabe egindako eskurapenetik datorrenean, oinarri ezargarriaren zenbatekoa elementuaren merkatuko ohiko balioa izango da.

Foru arau honek 12.2.k).c') artikuluan aipatzen dituen ondare irabaziak direnean, lurralde gipuzkoarrean kokatutako ondasun higiezinak edo ondasun horien gaineko eskubideek eskualdaketaren momentuan duten merkatu balioaren proportzioan zehaztuko da eskualdaketa balioa, betiere Zerga iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko Legeak lehen xedapen gehigarriaren 3. apartatuan jasotakoaren arabera zerga informazioaren benetako trukea ez duten herrialde edo lurraldeetan egoiliar diren entitateen eskubide edo partaidetzak eskualdatzetik eratoritzen badira.

5.³⁹ Pertsona fisiko ez-egoiliarrek direnean, Gipuzkoako lurraldean kokatutako ondasun higieziinei egotzitako errenta 2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legeak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak eta Sozietateen, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergen aldaketa partzialari buruzkoak, 85. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

6.⁴⁰ Egoitza Europar Batasuneko beste estatu kide batean duten zergadunak direnean, erregela berezi hauek aplikatu dira:

1.a Establezimendu iraunkorrik gabe lortzen dituzten etekinen oinarri ezargarria kalkulatzeko, azaroaren 28ko 35/2006 Legeak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautu eta Sozietateen, Ez-egoiliarren eta Ondarearen gaineko Zergen legeak zati batean aldatzen dituenak, aipatzen dituen gastuak kengarriak izango dira baldin eta zergadunak frogatzen badu Espainian lortutako etekinekin zuzenean erlazionatuta daudela eta Espainian egindako jarduerarekin lotura zuzena eta banaezina dutela.

2.a Ondare irabazien oinarri ezargarria kalkulatzeko, ondare aldaketa bakoitzari aplikaziozkoak izango zaizkio azaroaren 28ko 35/2006 Legeak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautu eta Sozietateen, Ez-egoiliarren eta Ondarearen gaineko Zergen legeak zati batean aldatzen dituenak, III. titulua II. kapitulu 4. sekzioan eta X. tituluko 6. sekzioan jasotako arauak, 94.1.a) artikulua bigarren paragrafoa izan ezik.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2006ko abenduaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2007-1-15eko GAO).

³⁹ Apartatu hau martxoaren 17ko 1/2009 FORU ARAUAREN 3. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak honako xedapenak aldatu ditu: abenduaren 29ko 10/2006 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, apirilaren 26ko 2/1999 Foru Araua, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena, eta martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua, Zergen Foru Arau Orokorra. 2009ko martxoaren 24tik aurrera ditu ondorioak (2009-03-23ko GAO).

⁴⁰ Apartatu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAREN 4 artikuluko bi apartatuak gehitzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarilaren 1etik aurrera ditun.

7.⁴¹ Salbuetsiak izango dira, hartzailea zerga informaziorako truke eraginkorrik ez dagoen herrialde edo lurralde batean bizi denean izan ezik, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauak, martxoaren 8koak, bere hamargarren xedapen gehigarrian ezartzen dituen baldintzetan, honako errenta hauek:

a) Ekitaldietako irabazi edo erreserben kargura banatutako dibidenduak, ekitaldi horietan Higiezinaren Merkatuan Inbertitzeko Sozietate Anonimo Kotizatuen zerga erregimena aplikatu baldin bazaio dibidendua banatzen duen erakundeari.

b) Aurreko letrak aipatzen duen erregimena aplikatzea aukeratu duten sozietateetako kapitaleko partaidetzaren eskualdaketan lortuak. Kasu honetan, errenta salbuetsiaren zenbatekoa zehazteko baliatu egingo da Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 10/2006 Foru Arauak, abenduaren 29koak, bere 49. artikuluko 1. apartatuko a) letran etekin berdinetarako ezarritako modua.

Zerga horietako autolikidazioa aurkezten duten unean zergadunek apartatu honetan xedatutakoa aplikatuko dute, baldin eta une horretan sozietateak betetzen baditu 11/2009 Legeak, urriaren 26koak, eskatzen dituen baldintzak. Baldintza horiek autolikidazioa aurkeztu eta gero betetzen badira, betiere Sozietateen gaineko Zergari buruzko 7/1996 Foru Arauak, uztailaren 4koak, 119. duodecies artikuluko 3. apartatuan aipatzen den epea amaitu aurretik, zergadunak autolikidazioa zuzentzeko eskaria egin ahal izango du, aipatu erregimena aplikatu ahal izatearren hain zuzen.

24. artikulua. Zerga kuota.⁴²

1. Zerga kuota kalkulatzeko, aurreko artikuluen arabera kalkulaturako oinarri ezargarriari karga tasa hauek aplikatuko zaizkio:

a) Oro har, %24.⁴³

b) Foru arau honek 2. artikuluan aipa-tzen dituen per-tsona fisiko ez-egoiliarrek jasotako pentsioak eta gainerako antzeko prestazioak, hura jasotzeko eskubidea sortu duen pertsona edozein izanik ere, eskala honen arabera kargatuko dira:

⁴¹ Apartatu hau, abenduaren 23ko 5/2010 Foru Arauak gehitu du. Aipatu Foru Arauak, zenbait zerga aldaketa onartzen ditu. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta aldaketa honek 2010ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2010-12-28).

⁴² Artikulu hau, abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga onartzen duenak aldatzen du, bere hemezortzigarren xedapen gehigarrian. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2006-12-30).

⁴³ Urtarrilaren 24ko 1/2012 FORU DEKRETU-ARAUAREN 1 artikuluko letra honetan aipatzen den karga tasa aldatzen du. Aipaturiko foru dekretu-arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzen ditu.

Aldaketaren bitartez 2012ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitartean, biak barne, 24. artikuluko 1. apartatuko a) eta f) letretan aipatzen dituen karga tasak (%24 eta %19 hurrenez hurren) %24,75 eta %21 izango dira.

<i>Pentsioaren urteko zenbatekoaren muga</i> Importe anual pensión hasta <i>Euroak / Euros</i>	<i>Kuota</i> <i>Cuota</i> <i>Euroak / Euros</i>	<i>Pentsioaren gainerako zatiaren muga</i> <i>Resto pensión hasta</i> <i>Euroak / Euros</i>	<i>Tasa</i> <i>Tipo aplicable</i> <i>%</i>
0	0	12.000	8
12.000	960	6.700	30
18.700	2.970	Hortik gora.	40

c) %8: Foru arau honen 2. artikuluan aipatutako pertsona fisiko ez-egoiliarren lan etekinak, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun ez badira eta Espainiako misio diplomatikoetan eta kontsul ordezkarietara lan egiten badute, Espainiak bere egiten dituen nazioarteko itunetatik eratorritako berariazko arauen aplikazioa ezinezkoa denean.

d) %1,5: Berraseguru eragiketetatik eratorritako etekinak direnean.

e) %4: Atzerrian egoitza duten itsas edo aire nabigazioko entitateak direnean, baldin eta beren itsasontzi edo aireontziak Gipuzkoako lurraldean sartzen badira.

f)⁴⁴ %19, hauek direnean:⁴⁵

1.a. Entitate baten fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako dibidenduak eta bestelako etekinak.

2.a. Kapital propioak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako interesak eta bestelako etekinak.

3.a. Ondare elementuen eskualdaketak direla-eta agerian jartzen diren ondare irabaziak.

g) Lan etekinak lurralde espainiarrean egoitzarik ez duten pertsona fisikoek jasotzen badituzte, %2ko zerga tasa aplikatuko zaie etekin horiei, sasoiko langile atzeritarrentzat eratutako iraupen jakineko kontratuen ondorioz eta lan araudiak ezarritakoaren arabera.

⁴⁴ Letra hau urtarilaren 12ko 1/2010 FORU DEKRETU-ARAUaren 1. artikulua aldatu du. Aipatutako Foru Dekretu-Arauek zenbait zerga aldatzen ditu (2010/01/21eko GAO). Aldaketak 2010eko urtarillaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

⁴⁵ Urtearen 24ko 1/2012 FORU DEKRETU-ARAUaren 1. artikulua letra honetan aipatzen den karga tasa aldatzen du. Aipatutako foru dekretu-arauek Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzen ditu.

Aldaketaren bitartez 2012ko urtarilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitartean, biak barne, 24. artikulua 1. apartatuko a) eta f) letretan aipatzen dituen karga tasak (%24 eta %19 hurrenez hurren) %24,75 eta %21 izango dira.

h)⁴⁶ %10ekoa izango da, ondorengo beharkizunak betetzen direnean, lurralde espainiarrean egoiliar den sozietate batek edo batasun barruko beste estatu kide batean egoiliarra den eta lurralde espainiarrean kokatuta dagoen establezimendu iraunkor batek ordaindutako kanonei edo emakida-sariei edo estatu kide batean egoi-tza duen eta beste estatu kide batean kokatuta dagoen establezimendu iraunkor bati aplikaziozkoa zaien karga tasa:

1.a Bi sozietateak Kon-tseiluak ekainaren 3an emandako 2003/49/EE Zuzentarauaren 3.a.iii) artikuluan jasotako zergetako bati lotuta egotea eta salbue-tsia izatea. Aipatu zuzentaraue estatu kide desberdinetako sozietate elkartuen artean egindako interes eta kanon ordainketei aplikaziozkoa zaien zerga erregimen bateratuari buruzkoa da.

2.a Bi sozietateek 2003/49/EE Zuzentarauaren eranskinean jasotako formetako bat izatea.

3.a Bi sozietateak egoiliar fiskalak izatea Europar Batasunean, eta ez har-tzea hirugarren estatuko egoiliar-tzat, errentaren ezarpen bikoi-tza saihesteko hirugarren estatu batekin sinatutako hitzar-men baten ondorioetarako.

4.a Bi sozietateak elkartuak izatea. Ondorio horietarako, bi sozietateak elkartutzat joko dira bata bestearen kapitalean gutxienez %25eko zuzeneko partaidetza duenean, edo hirugarren batek bi horietako bakoitzaren kapitalean gutxienez %25eko zuzeneko partaidetza duenean. Beharrezkoa izango da partaidetza hori etekinaren ordainketa egin den egunaren aurreko urtean zehar etenik gabe mantendu izana edo, bestela urtebete osatzeko beharrezkoa den denboran zehar mantendu izana.

5.a Bidezkoa denean, kopuru horiek kenkaridunak izatea kokatuta dagoen estatuan etekinak ordain-tzen dituen establezimendu iraunkorrerako.

6.a Sozietateak bere onurarako jasotzea ordainketa horiek eta ez, ordea, bitartekari soil gisa edo beste pertsona edo sozietate baten agente baimendu moduan; eta, establezimendu iraunkorra bada, berak jasotako kopuruak benetan lotuta egotea bere jarduerarekin, eta diru sarrera konputagarria izatea kokatuta dagoen estatuan oinarri ezargarria zehaztearen ondorioetarako.

h) letra honetan jasotakoa ez da aplikatuko etekinak hartzen dituen sozietatearen boto eskubiderik gehiena Europar Batasuneko estatu kideetan egoiliar ez diren pertsona fisikoek edo juridikoek zuzenean edo zeharka daukatenean, salbu sozietate hark frogatzen badu arrazoi ekonomiko onargarriengatik eratu dela eta ez, ordea, h) letra honetan jasotako araubideaz behar ez bezala gozatzeko.

2. Establezimendu iraunkorrik gabe diharduten zergadunek Gipuzkoan kokatutako ondasunak eskualdatuz gero, eskuratzaila behartuta egongo da %3 atxiki eta ordaintzera edo, bestela, ondasun horiei dagokien zergaren konturako ordainketaren kontzeptuan hitzartutako kontraprestazioa kontura ordaintzera.

⁴⁶ Letra hau otsailaren 1eko 1/2011 FORU DEKRETU ARAUAren 1 artikuluko hiru apartatuak ezabatzen du. Aipatutako foru dekretu arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezietan aldaketak sartzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean (2011/02/09ko GAO) eta 2011ko uztailaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

Apartatu honetan aipatu den konturako ordainketa ez da bidezkoa izango lurralde espainiarrean egoitza duten sozietateen kapital eraketa eta gehikuntzan ondasun higiezinak ematen diren kasuetan.

Urraketa dela eta jar daitezkeen zigorrak eragotzi gabe, goian aipatutako atxikipena edo konturako sarrera ordaindu ez bada, atxikipen edo konturako sarrera horren eta zergaren artean txikiena den zenbatekoaren ordainketari atxikita geratuko dira eskualdatu diren ondasunak.

3.⁴⁷ Foru arau honek 12.2.k).c') artikuluan aipatzen dituen ondare irabaziak direnean, lurralde gipuzkoarrean kokatutako ondasun higiezinengatik zerga ordaindu beharko da, betiere Zerga iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko Legeak lehen xedapen gehigarriaren 3. apartatuan jasotakoaren arabera zerga informazioaren benetako trukea ez duten herrialde edo lurraldeetan egoiliar diren entitateen eskubide edo partaidetzak eskualdatzetik eratoritzen badira.

Dena den, ondasun higiezin horien entitate titularrak zerga egoitza Espainian badu, zuzenean edo zeharka zergadunari entitate horretan dagozkion eskubide edo partaidetzengatik ordaindu beharko da zerga.

25. artikulua. Kenkariak.

Kenkari hauek egingo dira kuotan:

a)⁴⁸ 2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legeak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak eta Sozietateen, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergen aldaketa partzialari buruzkoak, 68.3 artikuluan jasotakoaren arabera emariengatik egin daitezkeen kenkarien zenbatekoak.

b) Zergadunaren errenten gainean egin diren atxikipenak eta konturako sarrerak.

26. artikulua. Sortzapena.

1. Hona hemen noiz sortuko den zerga:

a) Etekinak badira, exigigarriak direnean edo, bestela, kobrantza egunean hau lehenagokoa bada.

b) Ondare irabaziak badira, ondarearen bariazioa gertatu denean.

c) Ondasun higiezin hiritarrei egotzitako errentak direnean, urte bakoitzeko abenduaren 31ean.

⁴⁷ 3. apartatu hau urtarilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUAren 1. artikuluko zortzigarren apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2006ko abenduaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2007-1-15eko GAO).

⁴⁸ Letra hau martxoaren 17ko 1/2009 FORU ARAUAREN 3. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak honako xedapenak aldatu ditu: abenduaren 29ko 10/2006 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, apirilaren 26ko 2/1999 Foru Araua, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena, eta martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua, Zergen Foru Arau Orokorra. 2009ko martxoaren 24tik aurrera ditu ondorioak (2009-03-23ko GAO).

d) Gainerako kasuetan, errentak exigigarriak direnean.

2. Foru arau honek 11.2 artikuluan aipatutako ustezko errentak exigigarriak direnean sortuko dira edo, bestela, urte bakoitzeko abenduaren 31ean.

3. Zergaduna hilez gero, egozteko dauden errenta guztiak heriotzaren egunean exigigarriak direla ulertuko da.

27. artikulua. Aitorpena.

1. Establezimendu iraunkorrik gabe errentak lortzen dituzten zergadunak behartuta egongo dira zergaren aitorpena egitera, zerga honi dagokion zerga zorra zehaztuz eta ordainduz, erregelemanduz finkatutako moduan, tokian eta epeetan.

2. Foru arau honek 8. artikuluan definitutako erantzule solidarioek ere aitorpena egin eta zorra ordaindu ahal izango dute.

3. Zerga honen zergadunei ez zaie exigituko foru arau honen 30. artikuluan aipatutako atxikipena edo konturako sarrera egin zaien errentei buruzko aitorpena aurkeztea.

28. artikulua. Betebehar formalak.

1. Foru arau honek 23.2 artikuluan aipatutako errentak lortzen dituzten zergadunak behartuta daude erregelamenduz finkatutako sarrera eta gastuen erregistroak eramatera.

2. Atxikipenak eta konturako sarrerak egin behar dituztenean, zentsu aitorpena aurkeztera eta sarrera eta gastuen erregistroak eramatera behartuta egongo dira.

29. artikulua. Konturako ordainketak.⁴⁹

1.⁵⁰ Establezimendu iraunkorrik gabe jarduten diren zergadunak atxikipenak eta konturako etekinak egitera behartuta daude beraiek ordaintzen dituzten lan etekinei dagokienez, bai eta 23.2 artikuluan aipatutako errentak lortzeko gastu kengarria diren eta atxikipenari lotuta dauden beste etekin batzuei dagokienez ere. Atxikipenak eta konturako sarrerak Ekonomia Ituneko I. kapituluko 2. eta 3. sekzioetan jasotakoari jarraituz egingo dira.

2. Establezimendu iraunkorrik gabe diharduten zergadunen errentei dagozkien atxikipenak eta konturako sarrerak, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatuko ditu bakarrik, ulertzen denean errenta horiek Gipuzkoan lortu direla, foru arau honetako 12. artikuluan jasotakoaren arabera.

⁴⁹ Artikulu hau Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duen urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUAren II Kapituluko 4.artikuluaren lau zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-02-06).

⁵⁰ Apartatu hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 5. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Aldaketak Foru Araua Gipuzkoako Foru Aldundian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO)

Aurreko paragrafoan jasotakoa jasota ere, foru arau honek 12. artikuluan 2 apartatuko f) eta g) letretan eta h) letrako a') letran eta k) letrako a') eta c') letretan eta 3 apartatuan aipatutako kasuetan, atxikitzen behartutakoari dagokion eta Gipuzkoan lortu den eragiketa bolumenaren proportzioan eskatuko du Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ekonomia Itunaren I. kapituluko 3. sekzioaren berariazko arauak aplikatuz.⁵¹

30. artikulua. Atxiki eta kontura sartzeko betebeharra.⁵²

1. Ondoko hauek behartuta egongo dira atxikipena edo konturako sarrera egitera, beraiek ordaintzen dituzten zerga honi lotutako errentei dagokienez:

a) Espainiako lurraldean egoitza duten entitateak, esleipen erregimeneko entitateak barne.

b) Jarduera ekonomikoak egiten dituzten lurralde espainiarreko pertsona fisiko egoiliarak, haiek ekitaldian ordaintzen dituzten errentei dagokienez.

c) Establezimendu iraunkorraren bitartez jarduten diren zerga honen zergadunak, edo establezimendu iraunkorrik gabe aritzen direnak, baina azken horiek ordaintzen dituzten lan etekinei dagokienez, bai eta atxiki beharreko beste etekin batzuei dagokienez ere, baldin eta foru arau honek 23.2 artikuluan aipatutako errentak lortzeko gastu kenkaridunak badira.

d) Foru arau honek 5. artikuluko c) letran aipatutako zergadunak.

Misio diplomatikoak eta atzerriko estatuak Espainian dituzten bulego kontsularrak ez dira inoiz ere behartuta egongo atxikipenik edo konturako sarrerarik egitera.

2.⁵³ Atxikitzeko obligazioa duten subjektuak behartuta daude zenbateko jakin bat atxikitzen edo kontura sartzera, 23.2, 23.6, 25. eta 32.7 artikuluetan xedatutakoa kontuan hartu gabe. Zenbateko hori establezimendu iraunkorrik gabe jarduten duten zerga honen zergadunen zerga zorra kalkulatzeko foru arau honetan jaso diren xedapenak edo zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen batean ezarritakoak aplikatuz ateratzen den kopuruaren parekoa izango da.

Aurrekoa eragotzi gabe, konturako sarrera kalkulatzeko erregelamenduz xedatutakoari begiratuko zaio.

⁵¹ Azken paragrafo hau, zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUaren I Kapituluako 3.artikuluko Bigarren apartatuaren Lau zenbakiak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu.

⁵² 30.artikulu hau, zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUaren I Kapituluako 3.artikuluko Bigarren apartatuaren Bost zenbakiak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu.

⁵³ Apartatu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUaren 4. artikuluko hiru apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera ditun.

3. Atxikitzaera edo kontuan sartzera behartutako subjektuak derrigortuta daude sarrera Gipuzkoako Foru Aldundian egitera, obligazio hori ez betetzeak obligazio honetatik salbuestea ekarri gabe.

4.⁵⁴ Ez da atxikipenik edo konturako sarrerarik egingo hauei dagokienez:

a) Foru arau honen 13. artikuluan edo zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen batean xedatutakoaren arabera salbuetsita dauden errentak, artikuluko honen 5. apartatuan aitortzeko obligazioari buruz jasotakoa baztertu gabe.

Hori hala izanik ere, atxikitzaera edo kontura sartzeko obligazioa egongo da 13. artikuluko 1. apartatuko l), m) eta n) letretan aipatzen diren errentei dagokienez.

Ez da aitortzeko obligaziorik izango 13.1.c) artikuluan aipatzen diren etekinei dagokienez.

b) Akzio edo partaidetzen jaulkipen primaren banaketatik edo kapital murrizketatik sortutako etekina. Kasu horietan atxikitzaera edo kontura sartzeko obligazioa erregelamenduz ezarri ahal izango da.

c) Establezimendu iraunkorrik gabe jarduten duten zerga honen zergadunei ordaindutako errentak, zerga ordaindu dela edo salbuespena bidezkoa dela frogatzen denean.

d) Sozietateen gaineko zergari buruzko foru arauak 54. artikuluko 2. apartatuko c) letran aipatzen dituen errentak.

e) Arauzko eran finkatzen diren errentak.

5. Atxikitzaera edo konturako sarrerak egitera behartutako subjektuak berak atxiki edo kontuan sartutako kopuruen aitorpena aurkeztu eta Gipuzkoako Foru Aldundian ordaindu beharko du arauz finkatutako tokian, moduan eta epeetan, edo aitorpen negatiboa egingo du haien egitea egokitu ez denean. Era berean, arauz erabakitzen diren atxikipen eta konturako sarrerei buruzko urteko laburpena aurkeztuko du.

Atxikitzaera eta konturako sarrerak egitera behartutako subjektua derrigortuta dago dokumentazioa gordetzera eta, behar diren baldintzetan, atxikipenei edo konturako sarrerei buruzko ziurtagiria luzatzera.

6. Artikulu honetan ezarritakoa foru arau honen 24. artikuluko 2 apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe ulertuko da.

30.bis artikulua. Lan etekinen gainean atxikitzaera betebeharrak, egoitza aldatzen denean.⁵⁵

⁵⁴ Apartatu hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUAren 4. artikuluko lau apartatuak aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2010eko urtarilaren 1etik aurrera ditun.

Nahiz eta zerga honen zergadunak ez izan, atzerrira joateagatik izaera hori hartuko duten besteren konturako langileek Zerga Administrazioari horren berri eman ahal izango diote, lurralde espainiarretik noiz aterako diren jasota utzirik, lan etekinen ordaintzaileak zerga honen zergaduntzat hartzearen ondorio bakarrerako.

Arauz jasotzen den prozeduraren arabera, Zerga Administrazioak frogagiria luzatuko die hala eskatzen duten besteren konturako langileei, eta horiek jakinaraziko diote lurralde espainiarrean egoiliarra den edo establezimendu iraunkorra duen lan etekinen ordaintzaileari. Frogagirian jaso behar da noiztik aurrera egingo diren atxikipenak eta konturako sarrerak zerga honengatik.

Aurrekoak ez du salbuetsiko langilea Zerga Administrazioari zerga egoitza berria frogatzetik.

31. artikulua. (Indargabetua)⁵⁶

V. kapitulua: Entitate Ez Egoiliarren Ondasun Higiezin gaineko Karga Berezia

32. artikulua. Entitate Ez Egoiliarren Ondasun Higiezin gaineko Karga Berezia.

1. Gipuzkoan edozein titulu dela medio ondasun higiezin edo horietaz gozatzeko eskubide errealeen jabe diren edo halakoak dauzkaten entitate ez egoiliarrek Sozietateen gaineko Zergari lotuta egongo dira, urte bakoitzeko abenduaren 31n sortuko den eta sortzapenaren ondorengo urtarrian behar den tokian eta moduan ordaindu beharko den karga berezi baten bitartez.

2.⁵⁷ Karga bereziaren oinarri ezargarria ondasun higiezin balio katastrala izango da. Balio katastralik ez dagoenean, berriz, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren ondorioetarako aplikagarriak diren xedapenen arabera kalkulaturako balioa erabiliko da.

3. Karga Bereziaren tasa 100eko 3koa izango da.

⁵⁵ 30 bis.artikulu berri hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUaren 107.artikuluak erantsi du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga, Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

⁵⁶ Artikulu hau hau urtarrilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 1. artikulua bi apartatuak indargabetu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primen gaineko Zerga. (2009-01-16ko GAO; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2008ko abenduaren 26tik aurrerako ondorioekin.

⁵⁷ Apartatu hau 10/2012 FORU ARAUaren, abenduaren 18koaren amaierako laugarren xedapenak aldatu du. Aipaturiko Foru Araua Aberastasunaren eta Fortuna Handien Gaineko Zergarena da (2012-12-21 GAO). Aldaketa 2013ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean.

4. Karga Bereziaren subjektu pasiboek autolikidazioa eta ordainketa aurreko 1 apartatuan jarritako epean ez egiteak berarekin ekarriko du ondasun higiezinaren gaineko premiamenduzko prozedura bitartez eskatu ahal izatea. Prozedura hori hasteko, nahikoa izango da Zerga Administrazioak borondatezko ordainketaldia zerga ordaindu gabe amaitu izana eta zergaren zenbatekoa ziurtatzea.

5. Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Berezia ez zaie hauei eskatuko:

a) Atzerriko estatu eta herri erakundeei, eta nazioarteko organismoei.

b) Nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmena erabiltzeko eskubidea duten entitateei, baldin eta hitzarmen horretan informazioa elkarri trukatzeko klausula badago eta azken finean entitatearen kapitala edo ondarea zuzenean edo zeharka daukaten pertsona fisikoak lurralde espainiarrean egoiliarrek badira edo informazioa elkarri trukatzeko klausula duen nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmena erabiltzeko eskubidea badute.

Letra honetan jasotako salbuespena aplikatzeko, entitate ez egoiliarrek behartuta daude aitorten bat aurkeztera, ondoko hauek zerrendatuz: Gipuzkoan dauzkaten ondasun higiezinak, eta azken finean entitatearen kapitala edo ondarea daukaten pertsona fisikoak. Horretarako, entitatearen eta aipatu pertsona fisikoen zerga helbidea, nazionalitatea eta helbidea adieraziko dituzte. Aitortenarekin batera, entitatearen eta azken finean titularrak diren pertsona fisikoen zerga helbidearen aurkeztuko dute, estatuko zerga agintari eskudunek luzatuta.

Aitorten hori zerga ordaintzeko epe berean aurkeztuko da.

c) Espainian, jarraian edo ohikotasunez, ondasun higiezinaren edukitza soila edo errentamendua ez diren ustiapen ekonomikoak garatzen dituzten entitateei, erregelamenduz jasotakoaren arabera.

d) Ofizialki aitortutako bigarren mailako balore merkatuetan kotizatzen duten sozietateei.

e) Irabazi asmorik gabeko onegintza edo kultur entitateei, baimenduta daudenean informazioa elkarri trukatzeko klausula duen ezarpen bikoitza saihestearren Espainiarekin hitzarmena sinatu duen estatu bateko legeen arabera, baldin eta ondasun higiezinak beren xedeari lotutako jardueretan erabiltzen badira.

6. Entitate ez egoiliar bat beste pertsona edo entitate bat edo batzuekin batera ondasun edo eskubideen titularkidea denean, entitate ez egoiliarren Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Berezia eskatu ahal izango zaio haien titularitatean duen bere partaidetzari proportzionalki dagokion ondasun edo eskubideen balioaren zatiarengatik.

Aurreko 5 apartatuko b) letran aipatutako entitate ez egoiliarren bazkide, partaide edo onuradunen egoitzari buruzko baldintzak zati batean betetzen direnean, entitate ez egoiliarren Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Bereziaren kuota egoitza-baldintzak betetzen dituzten bazkide, partaide edo onuradunek entitatean duten partaidetzari dagokion proportzioan murriztuko da.

7. Entitate ez egoiliarren Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Bereziaren kuota gastu kenkariduna izango da, hala behar denean titulu honetako aurreko

artikuluen arabera dagokion Sozietate Zergaren oinarri ezargariaren kalkuluaren ondorioetarako.

VI.Kapitulua. Errentak esleitzeko erregimenean dauden entitateak.⁵⁸

32.bis artikulua. Errentak esleitzeko erregimenean dauden entitateak.

1.⁵⁹ Foru arau honetako 6.bis artikuluan aipatzen diren entitateek, haien kideen artean zerga honen zergadunak izanez gero, aplikatu beharko dute 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, IV. tituluko VI. kapituluaren 2. sekzioan jasotakoa, kontuan harturik Espainian edo atzerrian eratutako entitateak ote diren kapitulu horretan jasotako berezitasunak aintzat hartzearen.

2. Era berean, aurreko apartatuan aipatutako entitateetako kideek, zerga honen zergadunak izanez gero, kapitulu honetan jasotako berezitasunak aplikatuko dituzte.

1. sekzioa: Errenta esleipenaren erregimenean dauden entitateak, Espainian eratu direnak.

32.ter artikulua. Jarduera ekonomikoa egiten duten entitateak.

Errenta esleipenaren erregimeneko entitateek Gipuzkoan jardueraren bat egiten dutenean, kide ez-egoiliarrek zerga honen establezimendu iraunkorreko zergadunak izango dira aplikatuko zaizkie.

32.quater artikulua. Jarduera ekonomikorik egiten ez duten entitateak.

1. Errenta esleipenaren erregimeneko entitateek Gipuzkoan jarduerarik egiten ez dutenean, kide ez-egoiliarrek zerga honen establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunak izango dira, eta egozten ez zaien errenta-zatia foru arau honetako IV. kapituluaren jasotako arauari jarraituz zehaztuko da.

2. Horrelako kasuan, eta 3 apartatuan jasotakoa eragotzi gabe, errenta esleipenaren erregimeneko entitateak ondoko diferentzia kontura ordaindu egin beharko du: kide ez-egoiliarri dagokion atxikipenaren zatiaren eta foru arau honek 30. artikuluan xedatutakoa errenta egotziaren gainean zuzenean aplikatuz aterako litzatekeen atxikipenaren arteko diferentzia.

⁵⁸ VI Kapitulu berri hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUaren 108.artikuluak sortu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

⁵⁹ Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 3. artikuluko zazpi apartatuak aldatu du. Foru arau horrek jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

3. Gipuzkoan kokatutako ondasun higiezinak eskualdatuz gero, errenta esleipenaren erregimeneko entitateko kideetako bat ez-egoiliarra ez denean, eskuratzailerak foru arau honek 24.2 artikulua aplikatuz ateratzen den atxikipena egingo du kide horiei dagokien kontraprestazioaren zatiaren gainean.

4. Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak 2 apartatuan aipatutako betebeharra konplitzeko modua, tokia eta epeak zehaztuko ditu.

2. sekzioa: Errenta esleipenaren erregimenean dauden entitateak, atzerrian eratu direnak.

32.quinquies artikulua. Errenta esleipenaren erregimenean dauden entitateak, atzerrian eratu direnak.

Errenta esleipenaren erregimeneko entitatetzat hartuko dira atzerrian eratutako entitateak, baldin eta Espainiako legeen arabera eratutako errenta esleipenaren erregimeneko entitateen izaera juridikoaren berdina edo antzekoa badute.

32.sexies artikulua. Espainiako lurraldean dauden entitateak.

1. Baldin eta atzerrian eratutako errenta esleipenaren erregimeneko entitate batek Gipuzkoan jarduera ekonomikoa egiten badu eta jarduera osoa edo zati bat edozein motatako instalazio edo lantokietan jarraian edo ohituraz garatzen bada edo Gipuzkoan entitatearen izenean eta kontura kontratatzeko baimendutako agente baten bitartez jarduten bada, zerga honen zergaduna izango da eta ondoko arauak jarraiki urteko autolikidazio bat aurkeztu beharko du Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak finkatutako moduan:

1)⁶⁰ Oinarri ezargarria osatuta egongo da 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 57. artikuluan entitateko kide ez-egoiliarrei dagokienez jasotakoaren arabera zehaztutako errentaren zatiaz, errenta non lortu den kontuan hartu gabe.

2)⁶¹ Kuota osoa kalkulatzeko, %28ko zerga tasa aplikatuko zaio oinarri ezargarriari.

3) Kuota osoa gutxituko da foru arau honek 18.5 artikuluan establezimendu iraunkor bidez jarduten diren zergadunentzat finkatutako hobariak eta kenkariak nahiz konturako ordainketak aplikatuta, beti ere kide ez-egoiliarrei egozten zaien errentaren zatian.

2.⁶² Entitate horiek 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 58. artikuluan aipatutako

⁶⁰ Erregela hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAREN 3. artikuluko zortzi apartatuak aldatu du. Foru arau horrek jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO)

⁶¹ Erregela hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren amaierako hirugarren xedapenak aldatzen du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

aitorpen informatiboa aurkeztu beharko dute, entitateko kide egoiliarrei egozten zaien errentaren zatiagatik.

3. Aurreko 1 apartatuan aipatutako zergadunak behartuta daude zerga honen konturako ordainketa zatikatuak egitera, eta horretarako haien zenbatekoa autolikidatu eta ordainduko dute arauz finkatutako arauari jarraituz.

4. Baldin eta aurreko 1 apartatuan aipatutako entitateetako kide ez-egoiliarretako batek ezarpen bikoitzerako hitzarmena aldarrikatzen badu, kide horiek kuotak ordaindu dituztela ulertuko da entitateak ordaindutako kuotak haiei dagokien zatian.

32.septies. Espainiako lurraldean ez dauden entitateak.

1. Baldin eta atzerrian eratutako errenta esleipenaren erregimeneko entitate batek Gipuzkoan errentak lortzen baditu aurreko artikularen 1 apartatuan jasotako moduan jarduerarik egin gabe, kide ez-egoiliarrek zerga honen zergadunak izango dira, eta foru arau honek IV. kapituluaren xedatutakoaren arabera zehaztuko da haiei egotzi beharreko errentaren zatia.

2.⁶³ Lurralde espainiarrean lortzen diren errenten gaineko atxikipenei edo konturako sarrerei ez zaie aplikatuko 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 57. artikuluan xedatutakoa. Honelaxe egingo dira atxikipenak eta konturako sarrerak:

a) Ordaintzaileari frogatzen bazaizkio entitateko kideen egoitza eta haiei errenta egozteko proportzioa, kide bakoitzari aplikatuko zaio norberaren zergaren arabera zirkunstantzia horiengatik dagokion atxikipena.

b) Ordaintzailearen ustez aurreko letran deskribatutako zirkunstantziak frogatuta geratzen ez badira, zerga honen arauari jarraituz egingo du atxikipena edo konturako sarrera, kontuan hartu gabe kideen egoitza eta foru arau honek 13. artikuluan jasotako salbuespenak. Foru arau honek 24. artikularen 1. apartatuan jasotakoaren arabera bidezkoa den atxikipen tasa aplikatuko da.

Errenta esleipenaren erregimeneko entitatea arauz paradisurik gabe hartutako lurralde edo herri batean eratuta dagoenean, aurreko b) letran jasotako erregelari jarraituz egingo da atxikipena, nolana ere.

Atxikipena edo konturako sarrera kendu ahal izango da bazkide, oinordeko, komunero edo partaidearen ezarpen pertsonaletik, errentak esleitzen diren proportzio berean.

⁶² Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAREN 3. artikuluko zortzi apartatuak aldatu du. Foru arau horrek jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

⁶³ Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAREN 3. artikuluko bederatzi apartatuak aldatu du. Foru arau horrek jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

3. Gipuzkoan kokatutako ondasun higiezinak eskualdatuz gero, errenta esleipenaren erregimeneko entitateko kideetako bat egoiliarra ez denean, eskuratzailerak foru arau honek 24.2 artikulua aplikatuz ateratzen den atxikipena egingo du kide horiei dagokien kontraprestazioaren zatiaren gainean.

4.⁶⁴ Artikulu honetan aipatutako entitateek ez dute izango 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 58. artikuluan aipatutako informazio betebeharririk.

VII. kapitulua: Bestelako xedapenak

33. artikulua. Europako Batasuneko estatuetan egoitza duten zergadunentzako aukera.⁶⁵

1. Zerga honen zergaduna, Europako Batasunean egoiliarra den pertsona fisikoa izanez gero, baldin eta bere ohiko helbidea edo egoitza Europako Batasuneko estatu batean finkatua duela frogatzen badu, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun gisa Gipuzkoan tributatzea aukeratu ahal izango du, ondoren aipatuko diren errentak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan aldiaren barruan benetan zergapetu badira eta zirkunstantzia hauek gertatzen direnean:

a) Ekitaldiaren barruan, Espainian, lan etekinengatik eta jarduera ekonomikoen etekinengatik, gutxienez errenta osoaren 100eko 75a lortzea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan lortutako lan etekinenek eta jarduera ekonomikoen etekinek zatirik handiena hartzea Espainian lortutako errenta osoan.

c) Gipuzkoan lortutako lan etekinak eta jarduera ekonomikoen etekinak handiagoak izatea beste bi lurralde historikoetako bakoitzean lortutakoak baino.

Aurreko a) eta b) letretan jasotakoaren ondorioetarako, errentak zenbateko garbien arabera kalifikatu eta konputatuko dira, 2006ko azaroaren 28ko 35/2006 Legeak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Sozietateen, Ez-egoiliarren Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergen Legeen aldaketa partzialari buruzkoak, jasotakoari jarraituaz.⁶⁶

⁶⁴ Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 3. artikuluko bederatzi apartatuak aldatu du. Foru arau horrek jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

⁶⁵ 33.artikulu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUaren 109.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga, Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

⁶⁶ Paragrafo hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 3. artikuluko hamar apartatuak aldatu du. Foru arau horrek jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

Aurreko c) letran jasotakoaren ondorioetarako, errentak zenbateko garbien arabera kalifikatu eta konputatuko dira, 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, jasotakoari jarraituaz.⁶⁷

2. Kargapeko errenta osatuta egongo da artikuluko honetan araututako aukerako erregimenera biltzen den zergadunak Espainian lortutako errenta osoez. Errentak zenbateko garbien arabera konputatuko dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak jasotakoaren arabera zehaztuta.

3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauak zergaldiaren barruan zergadunak lortutako errenta guztiei aplikatuz ateratzen den batez besteko tasa izango da karga tasa, kontuan hartu gabe non sortu diren eta ordaintzaileak non duen egoitza, behar bezala frogatutako zirkunstantzia pertsonal eta familiarrek aintzat hartuta.

Batez besteko karga tasa bi zenbaki hamartar jarritz adieraziko da.

4. Zergadun ez-egoiliarrek lurralde espainiarrean zergaldiaren barruan lortutako errenten oinarri likidagarriari batez besteko karga tasa aplikatuz aterako da zerga kuota, oinarria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauari jarraituz kalkulaturik.

5. Zergaldia eta zergaren sortzapena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak zerga honen zergadunentzat jasotakoaren arabera zehaztuko dira.

6. Artikuluko honetan araututako aukerako erregimena aplikaziokoa zaien pertsona fisikoek ez diote utziko Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergaduna izateari.

7. Aukerako erregimena inoiz ere ez zaie aplikatuko arauz paradisu fiskaltzat hartutako herri edo lurraldeetan egoiliar diren zergadunei.

8. 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 100. artikuluan jasotako familia unitatearen modalitateetako batean sartzen diren zerga honen zergadunek eskatu ahal izango dute artikuluko honetan araututako aukerako erregimena aplikatzeko, foru arau horrek X. tituluan baterako tributazioari buruz jasotako arauak kontuan hartuta, baldin eta arauz finkatutako baldintzak betetzen badira.⁶⁸

9. Aukerako erregimen hau arau bidez garatuko da.

⁶⁷ Paragrafo hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 3. artikuluko hamar apartatuak aldatu du. Foru arau horrek jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

⁶⁸ Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 3. artikuluko hamar apartatuak aldatu du. Foru arau horrek jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

34. artikulua. Zerga zorraren ondorengotza.⁶⁹

Zergadunaren heriotza gertatzen denean, kausatzailearen ondorengoak behartuta egongo dira zerga honetan hark ordaindu gabe utzitako zerga obligazioak betetzera, zigorrak izan ezik, Zergen Foru Arau Orokorrak 39. artikuluan xedatutakoaren arabera.

35. artikulua. Zergadunaren ondare erantzukizuna.⁷⁰

Zergadun Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergan sortutako zorrak Kode Zibilarren 1365. artikuluan aipatutakoen izaera bera izango dute. Beraz, zuzenean ezkontza ondasunen bitartez kitatuko dira edozein ezkontidek Herri Ogasunaren aurrean kontzeptu hori dela-eta hartutako zorrak.

Aurreko paragrafoan jasotakoa maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera osatutako izatezko bikoteei aplikatuko zaie, bikoteko kideek finkatutako ondarezko erregimen ekonomikoari Kode Zibileko xedapen bera aplikaziozkoa izan eta zergaduna establezimendu iraunkor bidez jarduten denean.

36. artikulua. Urraketak eta zigorrak.⁷¹

Zerga honen urraketak Zergen Foru Arau Orokorrak IV. tituluan xedatutakoaren arabera zigortuko dira.

37. artikulua. Ordena jurisdikzionala.

Administrazioarekiko auzi jurisdikzioa, bide ekonomiko-administratiboa amaitu ondoren, jurisdikzio bakarra izango da Administrazioaren eta zergadun, atxikitzaile eta gainerako zergapekoen artean gerta daitezkeen gatazkak erabakitzeko, foru arau honetan aipatutako gaiei dagokienean.

38. artikulua. Behin-behineko likidazioa.

1.⁷² Zerga kudeaketako organoek bidezko behin-behineko likidazioa egin ahal izango dute, Zergen Foru Arau Orokorrak III. titularen III. kapituluaren 2. sekzioan jasotakoaren arabera.

2. Aurreko apartatuan jasotakoa Zerga Administrazioak geroago egin dezakeen egiaztapen edo ikerketa eragotzi gabe ulertuko da.

⁶⁹ Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako bostgarren xedapenaren 3 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

⁷⁰ 35.artikulu hau izatezko bikoteen zerga erregimenari buruzko abenduaren 15eko 20/2003 FORU ARAU Aren 6.artikuluak aldatu du.Foru arau hau 2004ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean. Halere, aplikazioa zergadunarentzat onuragarriagoa denean, 2003ko maiatzaren 24tik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO 2003-12-22).

⁷¹ Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako bostgarren xedapenaren 4 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jarriko da indarrean (2005-03-17 GAO).

⁷² 1. apartatu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako bostgarren xedapenaren 5 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

39. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketen kenkaria.⁷³

Zergadun bat egoitza aldatzeagatik bihurtzen bada zergadun ez egoiliar, Errenta Zergaren kontura urte hasieratik Zerga Administrazioaren aurrean egoitza aldaketa frogatzen duen arte egin dituen ordainketak Zerga honen atxikipenak edo konturako sarrerak direla joko da baldin eta konturako ordainketa horiek zergadunak jaso dituen eta zerga honi atxikita dauden errentei badagozkie.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Arauei buruzko aipamenak.

1. Sozietate Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauan eta ekainaren 10eko 45/1997 Erregelamenduan haren XI. tituluari buruz egindako aipamenak foru arau honen xedapenei buruzkoak direla ulertuko da.
2. Sozietate Zergari buruzko arauetan zerga ordaintzeko ondasun betebeharra duten subjektu pasiboei buruzko aipamenak Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei buruzkoak direla ulertuko da.

Bigarrena. Ondare Zergari buruzko abenduaren 27ko 14/1991 Foru Araua aldatzea.

Foru arau hau indarrean jartzen denetik aurrera, Ondare Zergari buruzko abenduaren 27ko 14/1991 Foru Arauaren 4. artikuluko bederatzi apartatua honela idatzita geratuko da:

“Bederatzi. Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera etekinak salbuetsirik dituzten baloreak.”

Hirugarrena. Atxikipenari edo konturako sarrerari ez lotzea.⁷⁴

2001eko urtarrilaren 1etik aurrera, akzio edo partaidetzak jaulkitzeko primaren banaketatik edo kapitalaren murrizpenetik eratortzen den etekinak ez du Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergan atxikipenik edo konturako sarrerarik izango. Kasu horietan atxikitzeko edo kontura sartzeko obligazioa erregelamendu bidez ezarri ahal izango da.

Laugarrena. Adiskidantzazko prozedurak.⁷⁵

⁷³ 39. artikulua hau urtarrilaren 30eko 2/2001 Foru Dekretuaren 1 artikuluko 1. zenbakiak gehitzen du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000 legeetara egokitzen du. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzekoa, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. 2001eko otsailaren 9an sartu zen indarrean, 2000ko abenduaren 15etik aurrerako ondorioekin.

⁷⁴ 3. xedapen gehigarri hau urtarrilaren 30eko 2/2001 Foru Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriak gehitzen du. Foru dekretu honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000 legeetara egokitzen du. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzekoa, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. 2001eko otsailaren 9an sartu zen indarrean, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

1. Beste estatu batzuetako administrazioekin nazioarteko hitzarmen eta itunak gauzatzean sor daitezkeen gatazkak hitzarmen edo itunetan jasotako adiskidantzazko prozeduren bidez konponduko dira, bidezko errekurtsio edo erreklamazioak aurkezteko eskubidea eragotzi gabe.

2. Bi administrazioen artean adiskidantzazko prozedura baten barruan adostutako akordioa, era berean, horrek irmotasuna hartzen duen momentuan edo aldian gauzatuko da, arauz ezartzen den moduan.

3. Ondorio horietarako, arauz ezarriko da adiskidantzazko prozedurak bideratu eta amaierako akordioa gauzatzeko jardunbidea.

4. Ezin izango da batere errekurtsorik aurkeztu aipatu akordioen aurka. Nolanahi ere, horrek ez du eragotziko akordio horiek gauzatzeko ematen diren egintza administratiboen aurka errekurtsioak jartzea.

5.⁷⁶ Adiskidantzazko prozedurak tramitatzean, ez da sortuko berandutza interesik.

6.⁷⁷ 1. Adiskidantzazko prozeduretan, zorraren ordainketa automatikoki etenda geratuko da, interesatuak eskatuta, baldin eta bermatzen badira zorraren zenbatekoa eta etena eskatzean bidezkoak izan daitezkeen errekarquak, betiere arauz jasotzen denari jarraituz.

Ezin izango da zorraren ordainketa eten aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera, etena bide administratiboan edo jurisdikzionaletan eskatu daitekeen bitartean.

2. Bakarrik berme hauek onartuko dira aurreko zenbakian aipatutako eten automatikoa lortzeko:

⁷⁵ Xedapen gehigarria hau urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUaren 1. artikuluko bederatzigarren apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2006ko abenduaren 1etik aurrera ditu ondorioak. (2007-1-15eko GAO).

Aipatu 1/2007 FORU DEKRETU ARAUaren lehenengo xedapen gehigarriak zera arautzen du:

«2. 1999ko apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauak, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, laugarren xedapen gehigarriaren 5. apartatuan jasotakoa, betiere Foru Dekretu Arau honek emandako idazkeran, aplikaziozkoa izango da aipatu xedapen gehigarria garatzen duen xedapena indarrean jartzen denetik aurrera.»

⁷⁶ Apartatu hau urtarrilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 1. artikulua hiru apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primaren gaineko Zerga. (2009-01-16ko GAO; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2008ko abenduaren 26tik aurrerako ondorioekin.

⁷⁷ Apartatu hau urtarrilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 1. artikulua hiru apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primaren gaineko Zerga. (2009-01-16ko GAO; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2008ko abenduaren 26tik aurrerako ondorioekin.

- a) Diruaren edo balore publikoen gordailua.
 - b) Kreditu entitate edo elkarrekiko bermerako sozietate baten abal edo fidantza solidarioa, edo kauzio aseguruako ziurtagiria.
3. Adiskidantzazko prozedurek ez badute zor osoa hartzen, adiskidantzazko prozedurek eragindako zenbatekora mugatuko da apartatu honetan jasotako etena.

Bosgarrena. Salbuespen partziala ondasun higiezin jakin batzuen eskualdaketatik eratorritako ondare irabazietan.⁷⁸

Ehuneko %50eko salbuespena izango dute lurralde espainiarreko establezimendu iraunkorrik gabeko bitartekaritzarik gabe lortu diren eta Gipuzkoan kokatutako ondasun higiezin basterentzetik eratorriak diren ondare irabaziek, baldin eta 2012ko maiatzaren 12tik aurrera eta 2012ko abenduaren 31ra bitartean eskuratu badira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikagarria izango, kasu hauetan:

- a) Pertsona fisikoak izanez gero, eskuratu edo eskualdatu bazaio ondasun higiezina ezkontideari, zergadunarekin zuzenean edo zeharka, odolkidetasunez edo ezkontza bidez, bigarren mailaraino, hori barne, ahaidetasun bidez lotutako edozein pertsonari, zergadunarekin edo aurretik aipatutako edozein pertsonarekin Merkataritza Kodearen 42. artikuluan jasotako zirkunstantzietako bat gertatzen den entitate bati, bizilekua edo urteko kontu bateratuak egiteko obligazioa kontuan hartu gabe.
- b) Entitateak izanez gero, ondasun higiezina eskuratu edo eskualdatu zaionean zergadunarekin edo aurretik aipatutako edozein pertsonarekin Merkataritza Kodearen 42. artikuluan jasotako zirkunstantzietako bat gertatzen den pertsona edo entitate bati, bizilekua edo urteko kontu bateratuak egiteko obligazioa kontuan hartu gabe, edo aurretik aipatutako pertsonaren ezkontideari edo harekin zuzenean edo zeharka, odolkidetasunez edo ezkontza bidez, bigarren mailaraino, hori barne, ahaidetasun bidez lotutako edozein pertsonari.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA⁷⁹

Pertsona fisikoak diren establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunei mar-txo-aren 5eko 5/2004 Errege Dekretu Legegileak, Pertsona Fisikoen

⁷⁸ Xedapen gehigarri hau uztailaren 27ko 3/2012 FORU DEKRETU-ARAUaren 1. artikuluko bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretu-arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga bereziak eta Jokoaren gaineko Zerga aldatzen ditu. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jartzen da indarrean (2012/08/13ko GAO) eta aldaketa honek 2012. urteko maiatzaren 12tik aurrera ditu ondorioak,

⁷⁹ Xedapen iragankor hau, 29ko 10/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga onartzen duenak aldatzen du, bere hemezortzigarren xedapen gehigarrian. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak (GAO 2006-12-30) .

Errentaren gaineko Zergaren Testu Bateratuari buruzkoak, xedapen iragankor bakarrean jasotakoa aplikatuko zaie.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

1. Foru arau hau indarrean jartzean, bertan xedatutakoarekin bateraezinak diren xedapen guztiak indarbabetuta geratuko dira, eta bereziki ondoko hauek:

a) Sozietate Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 2. artikuluko 4., 10 eta 12 apartatuak, aurrerantzean, artikuluko horretako 5, 6, 7, 8, 9 eta 11 apartatuak 4, 5, 6, 7, 8 eta 9 apartatuak izango dira hurrenez hurren.

Beraz, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudian uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 2. artikuluko 5, 6, 7, 8, 9 eta 11 apartatuei buruz egindako aipamenak ulertu behar dira, foru arau hau indarrean jartzen denetik aurrera, artikuluko bereko 4, 5, 6, 7, 8 eta 9 apartatuei buruzkoak direla, hurrenez hurren.

b) Sozietate Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren XI. titulua.

c) Sozietate Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarria.

d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Araua, zerga ordaintzeko ondasun betebeharrari dagokionean.

2. Foru arau hau indarrean jartzean Sozietate Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren VIII. tituluak indarrean jarraituko du, bai eta lurralde espainiarrean egoitza ez duten pertsona fisiko edo entitateei dagokienean ere.

3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Araua eta Sozietate Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua garatzean tributazioaren ondasun obligazioari buruz emandako erregelamenduzko arauak indarrean jarraituko dute, foru arau honetan jasotakoari aurre egiten ez dioten neurrian, arauak emateko ahalmenari jarraiki eman behar diren erregelamenduzko arauak indarrean jarri arte.

4. Aurreko 1 apartatuan aipatutako xedapenak indargabetzeak ez dio kalterik egingo haien indarraldian sortutako betebeharren gainean Herri Ogasunari dagozkion eskubideei.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena. Arauak emateko ahalmena.

Baimena ematen zaio Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuari foru arau hau garatu eta gauatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean. Zergadunak establezimendu iraunkor bitartez jardunez gero, aipatu egunetik aurrera ixten diren zergaldiei aplikatuko zaie.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Urtarrilaren 30eko 2/2001 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000 legeetara egokitzen duena. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzekoa, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. (2001-02-08ko GAO)*
 - 1. artikulua 1 zenbakiak 39. artikulua gehitzen du.
 - 1. artikulua 2 zenbakiak 13. artikulua 1 apartatuari k) letra gehitzen dio, 24. artikulua 1 apartatuko f) letra aldatzen du, eta 24. artikulua 1 apartatuari g) letra gehitzen dio.
 - Bosgarren xedapen gehigarriak, hirugarren xedapen gehigarri berri bat gehitzen du.
- *Otsailaren 26eko 5/2002 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko 2002. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 23/2001 Legean eta Zerga, Administrazio eta Gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legean xedatutakora egokitzen duena. (GAO 2002-03-08)*
 - 1. artikulua 24. artikulua 1 atalari h) hizkia gehitzen dio.
- *Urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUA, Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duena. (GAO 2003-02-06).*
 - 4.artikuluak 2, 10, 12, 29 eta 30 artikulua aldatzen ditu.
- *Martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUA, ondoko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen duena: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga, Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zerga. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).*
 - Bere Hirugarren Kapituluak prezeptu hauek aldatu ditu: 8.artikulua 1., 2. eta 3 apartatuak, 9.artikuluak, 12.artikuluak, 13.artikulua 1 apartatuko h) letra, 13.artikulua 2.apartatua, 15.artikulua 1.apartatua, 18.artikulua 3.apartatua,18.artikulua 4.apartatua, 24.artikulua

- 1.apartatuko b) letra, 24.artikuluaren 1.apartatuko g) letra, 30.artikuluaren 1.apartatua eta 33.artikulua.
 - Hauek erantsi ditu: c) letra 5.artikuluari, 6 bis.artikulu berria, 4.apartatua 8.artikuluari eta 30 bis.artikulu berria.
 - Eta VI Kapitulua sortu du.
- *Abenduaren 15eko 20/2003 FORU ARAUA izatezko bikoteen zerga erregimenari buruzkoa. (GAO 2003-12-22).*
 - Bere 6.artikuluak 35.artikulua aldatu du.
- *Zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUA (GAO 2004-04-16).*
 - Bere 3. artikulua honako prezeptu hauek aldatu ditu:
 - Bere Lehenengo apartatuak 17. artikuluen 1 apartatuko e) letra aldatu du.
 - Bere Bigarrenengo apartatuak:
 - 12. artikuluen h) letra; 13. artikuluen 1 apartatuko b) letra; 17. artikuluen 5 apartatuko lehendabiziko paragrafoa; 29. artikuluen 2 apartatuaren azken paragrafoa eta 30. artikulua aldatu ditu;
 - eta 33. artikuluen 1 apartatuari amaierako bi paragrafo gehitu dizkio.
 - Bere Hirugarrenengo apartatuak 24. artikuluen 1 apartatuari i) letra gehitu dio.
- *Gipuzkoako Lurralde Historikoko martxoaren 8ko 2/2005 Zergen FORU ARAU Orokorra (2005-03-17 GAO)*
 - Bere amaierako bostgarren xedapenak honako prezeptu hauek aldatu ditu: 8. artikuluko 3. apartatua, 9. artikuluko 3. apartatua, 34. artikulua, 36. artikulua eta 38. artikuluko 1. apartatua.
- *Abenduaren 27ko 2/2005 FORU DEKRETU ARAUA, ZERGA ALORREKO PRESAZKOA, 22/2005 eta 23/2005 legeek lurralde komunean sartutako aldaletetara Gipuzkoako zerga araudia egokitzea (2005-12-30eko GAO).*
 - 3. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu: 13. artikuluko 1 apartatuaren g) letra eta 13. artikuluko 2 apartatua.
- *Urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege*

Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen duena (2007-1-15eko GAO).

- 1. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu: 8. artikuluko 3 apartatua; 9. artikulua; 10. artikuluko 2. apartatua, 14. artikulua; 17. artikulua; 18. artikuluko 4. apartatuaren a) letra; 23. artikuluko 4. apartatua; 24. artikuluko 3. apartatua eta laugarren xedapen gehigarria gehitzen ditu.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Araua (2006-12-30eko GAO).

- Bere hemezortzigarren xedapen gehigarriak artikulua hauek aldatzen ditu: 13. artikulua; 15. artikuluko 1. apartatua; 18. artikuluko 3. apartatua; 24. artikulua; 30. artikuluko 4. apartatua eta xedapen iragankor bakarra.

2007ko abenduaren 29ko 3/2007 FORU DEKRETU ARAUA, 1996ko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa, aldatzekoa (2007-12-31ko GAO).

Bere seigarren xedapen gehigarriak 18. artikuluko 2 apartatua eta 32 sexies artikulua 1 apartatuko 2. erregela aldatzen ditu.

- *EBAZPENA, 2008ko urtarrilaren 10ekoa, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Lehendakariitzarena, honako xedapen hau indargabetzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 3/2007 Foru Dekretu-Araua, abenduaren 29koa, 1996ko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa, aldatzekoa (2008-01-14ko GAO).*

- *Otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUA, Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldatetara, eta Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldatetara egokitzen duena (2008-02-15eko GAO).*

- Bere 2. artikulua 2. artikulua aldatzen du.

- *Uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUA, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituen. (2008-07-11ko GAO).*

- 3. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 5. artikulua b) letra.
 - 6. artikulua.
 - 6. bis artikulua.
 - 7. artikulua.

- 12. artikulua 2. apartatuko e) letra eta 5. apartatua.
 - 32. bis artikulua 1. apartatua.
 - 32. sexies artikulua 1. apartatuko 1. erregela eta 2 apartatua.
 - 32. septies artikuluko 2. eta 4. apartatuak.
 - 33. artikulua 1. apartatuko azken bi paragrafoak eta 8. apartatua.
 - 19. artikulua 13. artikuluko 2. apartatua aldatu du.
- *Abenduaren 23ko 8/2008 FORU ARAUA, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzekoa (2008-12-30ko GAO).*
 - Hirugarren amaierako xedapenak 18. artikulua 2. apartatua eta 32sexies artikulua 1. apartatuaren 2) zenbakia aldatu du.
- *Urtarrilaren 13ko 1/2009 FORU DEKRETU ARAUA, zerga alorreko presazkoa, honako zergak aldatzen dituena: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primen gaineko Zerga (2009-01-16ko GAO; akats zuzenketak 2009-01-26ko GAO).*
 - Bere lehen artikulua 30. artikulua 4. apartatuko a9 letrari hirugarren paragrafoa gehitu dio, 31. artikulua indargabetu du eta laugarren xedapen gehigarriari 5. apartatua aldatu eta 6.a gehitu dizkio.
- *2006ko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, 1999ko apirilaren 26ko 2/1999 Foru Araua, zergadun ez-egoiliarren Errentaren Gaineko Zergarena, eta 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua, Zergen Foru Arau Orokorra aldatzen dituen martxoaren 17ko 1/2009 FORU ARAUA (2009-03-23ko GAO).*
 - 3. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu: 23.artikuluko 1 eta 5. apartatuak eta 25. artikulua.
- *4/2009 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen dituena (2009/12/28ko GAO).*
 - 18. artikuluko 3. apartatua aldatzen du.
- *1/2010 FORU DEKRETU ARAUA, urtarrilaren 12koa, zenbait zerga aldatzen dituena (2010/01/21ko GAO).*
 - Bere 1. artikulua 24. artikuluko 1 apartatuaren f) letra aldatzen du.

- *2/2010 FORU DEKRETU ARAUA, martxoaren 30ekoa, zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen duena (2010/04/19ko GAO).*
 - Bere 4. artikulua prezeptu hauek aldatu ditu:
 - 13. artikulua 1. apartatuari f) letra aldatu du eta beste bi gehitu dira, m) eta n) letrak.
 - 23. artikulua 6. apartatua gehitu dio.
 - 30. artikulua 2. eta 4. apartatuak aldatu ditu.
- *5/2010 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, Zenbait zerga aldaketa onartzen dituen (2010/12/28ko GAO).*
 - Bere 3. artikulua hurrengo aldaketak onartu ditu:
 - 2010-1-1etik aurrerako ondorioekin, 23. artikulua 7. apartatua gehitu dio.
 - 2011-1-1etik aurrerako ondorioekin, 17.1 artikulua f) letra gehitu dio.
- *1/2011 FORU DEKRETU ARAUA, otsailaren 1ekoa, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzen dituen (2011/02/09ko GAO).*
 - Bere 1. artikulua aldaketa hauek sartzen ditu:
 - 13. artikulua 1. apartatuko g) letra aldatzen du.
 - 13. artikulua 1. apartatuko o) letra gehitzen du 2011ko uztailaren 1etik aurrera.
 - 24. artikulua 1. apartatuko h) letra kentzen du 2011ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin.
- *2/2011 FORU DEKRETU-ARAUA, irailaren 20koa, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzea onartzen duena (2011/09/26ko GAO).*
 - Bere lehenen artikulua 13. artikuluko 1. apartatuaren m) eta n) letrak aldatzen ditu.
- *Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen dituen abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUA (2011/12/27ko GAO).*
 - Bere 5. artikulua hurrengo aldaketak onartu ditu:
 - Bere bi eta hiru apartatuetan 21 eta 29ko 1 apartatuak aldatu ditu 2011-12-28ko ondorioekin.

- Bere bat apartatua 2. artikularen 1. apartatua aldatu du 2012-1-1eko ondorioekin.
- *1/2012 FORU DEKRETU-ARAU, urtarrilaren 24koa, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta zerga berezietan aldaketak sartzen dituen (2012/01/31ko GAO).*
 - 1. artikulak 2012ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitartean, biak barne, 24. artikularen 1. apartatuko a) eta f) letretan aipatzen dituen karga tasak (%24 eta %19 hurrenez hurren) %24,75 eta %21 izango dira.
- *3/2012 FORU DEKRETU- ARAUA, uztailaren 27koa, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga bereziak eta Jokoaren gaineko Zerga aldatzen dituen (2012/08/13ko GAO).*
 - 1. artikulak 13. artikuluko 1. apartatuaren g) letra aldatzen du eta bostgarren xedapen gehogarria gehitzen du.
- *10/2012 FORU ARAUA, abenduaren 18koa, Aberastasunaren eta Fortuna Handien Gaineko Zergarena (2012/12/21eko GAO).*
 - Bere amaierako laugarren xedapenak 32. artikularen 2. apartatua aldatu du. Aldaketa 2013ko urtarrilaren 1ean jarri da indarrean.